

HAUTESKUNDE PROGRAMA  
HAUTESKUNDE OROKORRAK  
2019-2023

---

HEMEN



ej  
pnv



## › AURKIBIDEA

---

›1	XII. ETA XIII. LEGEGINTZALDIEN ANALISIA (2016-2019)	5. OR.
›2	PERTSONAK, JARDUERA ARDATZ NAGUSIA: AUTOGOBERNU GEHIAGO ETA 2030 AGENDA	6. OR.
›3	ERRESPETURIK HANDIENA ETA AURRERABIDEA ESKUBIDE ETA ASKATASUNETAN	8. OR.
›4	ETORKIZUN EKONOMIKOA	11. OR.
›5	GIZARTE POLITIKAK DESBERDINTASUNA MURRIZTEKO ETA ONGIZATE ESTATUA BABESTEKO	12. OR.
›6	BIZISARI DOI ETA DUINAK	14. OR.
›7	IRAUNKORTASUN ENERGETIKOA ETA KONPROMISO IRMOA INGURUMENAREKIN	16. OR.
›8	XXI. MENDEKO IKASKUNTZA EREDUA: HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETA	20. OR.
›9	EUROPA	22. OR.
›10	EGONKORTASUNA HAZKUNDE EKONOMIKO ETA SOZIALERAKO	23. OR.
›11	INDUSTRIAREN, SEKTORE EKONOMIKOEN, BERRIKUNTZAREN ETA NAZIOARTEKOTZEAREN ALDEKO HAUTUA	25. OR.
›12	ENPLEGUA, LEHEN MAILAKO ERRONKA	29. OR.
›13	GARRAIO AZPIEGITURAK GARAPEN IRAUNKORRERAKO	32. OR.
›14	ETIKA ETA GARDENTASUNA EKINTZA POLITIKO ETA INSTITUZIONALEAN	33. OR.



## › XII. ETA XIII. LEGEGINTZALDIEN ANALISIA (2016-2019)

EAJk beti egin du herri erakunde guztietan egotearen hautua, hantxe aldeztu direlako gure autogobernua eta gure balioak. Ekintza ildo horretan, EAJ Euskadiren interesen ahotsa eta defentsa izaten ari da Madrilen. Euskadi da gure helburua. Euskadi da nahi duguna.

Aurrerapen eta baliabide asko lortu ditugu geure Herriarentzat transferentziak negoziatuz, inbertsioak erakarriz eta gure berezitasuna eta gure eskubide historikoak aldeztuz. Euskadi aldeztu jarraituko dugu Madrilen. Gure etorkizuna erabakitzeko eskubidea planteatzen, enplegua eta ongizatea sortzeko proposamen eraikitzaileak egiten, eragile aktiboak izaten eta gizarte eskubideetan aurrerapenak aldarrikatzen, horiek baitira gure lehentasuna eta gure nortasun ikurra.

Azken bi legegintzaldiak bitxiak eta aztoratuak izan dira. Sortu ez zen legealdi bat izan zuen aurretik 2015ean, eta PPren gobernu bat osatu zen 2016an. 2018an, zentsura mozio baten bidez, PSOEren gobernu baten inbestidura egin zen, eta, 2019ko Aurrekontu Orokorra atzera bota zizkionenez, hauteskunde orokorren deialdia aurreratzea erabaki zuen. Herriarren parte-hartze zabalak PP, C's eta Vox alderdiek osatutako gobernua ekidin zuen, eta gobernu alternatiboa lortzeko atea ireki. Hala ere, batzuek adostasunera iristeko izan duten gogo faltak eta beste batzuen abileziak hori ezinezko bihurtu dute. EAJ-PNVk ahal izan zuen guztia egin zuen gobernua osatu eta erakundeetan egonkortasuna lortzeko. Argi esan genuen: inbestidurak aurrera egitea gure esku egonez gero, alde bozkatuko genuke, akordiorik itxi gabe ere. PSOE eta PODEMOSen arteko akordioa beharrezkoa zen gehien-goia osatzeko, eta halakorik lortzeko gai ez izatea benetako arduragabekeria da ekonomia arloan hodei beltzak datozkigun garai hauetan. Brexita definitu behar da, lurralde-krisia inoiz baino gordinago agertzen zaigu eta eskulina muturrerantz doa, birzentralizatzeko politikak planteatuz eta eskubideak murriztuz.

Gorabehera eta gobernu aldaketa horiek, desadostasunekin eta auzitegien protagonismo handiarekin, joan den legealdiaren ezegonkortasun politikoaren berri ematen dute.

Gainera, Kataluniaren kontua etengabe egon da erdian 2017ko urriaren 1eko erreferenduma egin zenez gero: lehenengo, PP, PSOE eta C's-ek Konstituzioaren 155. artikulua aplikatzea, gero, horrek erakarri dituen ondorioak, besteak beste, lider independentisten behin-behineko espetxeratze justifikaezina, konponbideak bilatzea konplikatu duena eta argi eta garbi neurrigabekoa eta beharretakoa izan den azken epaia.

Azken finean, Kataluniako prozesua izan da, zentsura mozioarekin eta ustelkeriarekin batera, azken bi legegintzaldi laburrak markatu dituen. Egoera politiko konplikatu honek gobernuaren ahultasuna ekarri zuen, eta horrek zailago egin ditu gobernu ekintzak eta beharrezkoak bezain urgentek diren egiturazko erreformei ekitea.

Egoera honetan ere, EAJk, politika beti ulertu duen ordezkarik gaituzten herritarren interesak aldezteko elkarriketa eta itun gisa, lorpen handiak erdietsi ditu. Azpimarratzekoak, bost urteko 2017-2021 Kupo legea eguneratzea eta Itun legea aldatzea; bizisariak igotzeari buruzko akordioa, euskal enpresen argindar faktura merkatzea, AHT egiteko kronograma eta hirietako tren sarrerak, beste azpiegitura batzuk, energia arloko inbertsioak, I+G+b, Lemoizko zentralaren lursailen eskualdaketa nahiz AP-68 eta AP-1 autobideena. Hala, EAEko bideen sarea euskal erakundeen esku geratu da.

Madrilen egiten den itxurakeria-politikaren, hitz hutsen, eraginkortasun faltaren, populismoaren, elkarriketarako eta akordiorako gaitasun ezaren eta ezegonkortasun instituzional nahiz ekonomikoaren aurrean, Euskadin badugu alternatiba: Hemen, EAJ-PNV.

## » PERTSONAK, JARDUERA ARDATZ NAGUSIA: AUTOGOBERNU GEHIAGO ETA 2030 AGENDA

'Agenda Globala' deritzon Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendako dimentsio sozialaren ildotik, EAJk uste du ekintza politikoaren ardatz estrategikoez herritarren kezak argitzera bideratuta egon behar dutela, hau da, parekotasunik eza gutxitzea, inklusio politikak, ahulenak babestea, klima aldaketaren aurkako borroka irmoa, enplegu gehiago eta hobea ekarriko duten politika ekonomiko eta industrialak, eta hori guztia, beti, Giza Eskubideak eta oinarrizko askatasunak bete-betean errespetatuz. Aurka izango gaitu, beraz, planteamendu horietan atzera egitea dakarren proiektu orok.

Era berean, eta gauden abagune politikoa zein den jakinik, hots, Estatuaren lurralde egituraren inguruan eztabaida sakon bat dugula eta arkitektura autonomikoak inboluzio arrisku garbia duela, EAJk konpromisoa hartzen du gure Estatutua, Ekonomia Ituna eta euskal nazioa uste osoz eta erabakitasunez aldezteko, eta, beraz, oraingo eskumen esparruaren inboluzio arriskuaren aurrean eus-torma izateko.

Ardatz handi bi horiek, gainera, hurbilkorrak dira, izan ere, EAJn argi dugu autogobernu gehiago ongizate gehiago dela, baliabideen eta politiken kudeaketa hobea garapen iraunkorrerako mesedegarria dela, eta, inolako zalantzarik gabe, zuzenean herritarren onerako dela.

Horren erakusgarri da Euskadin egoera hobea bizi dugula, adierazle sozial eta ekonomiko nagusien arabera. Nolanahi ere, guztiz jabetuta gaude Europako politikak eta Espainiako estatuarenak guri ere eragiten digula, eta, horregatik, kontratazioa, enpleguaren kalitatea eta estatuan eta Europan baliabide publikoen erabilera hobea bultzatuko dituen lan araudia aldeztuko dugu, horien mendean baitaude neurri handi batean gure enpresak eta, beraz, gure herritarrak.

Era berean, Gizarte Segurantzaren zuzenean axola zaigu, beharrezkotzat jotzen dugulako gure herritarrei bizimodu duina mantendu ahal izateko prestazioak bermatzea. Toledoko Itunaren Jarraipen Batzordean akordioa zarpuztu da, hain zuzen, hauteskunde aurreratuen deialdia iragarri zen une berean, eta adostasunarekin zerikusirik ez duten interes eta jarreraren ondorioz. Berrirori beste geldialdi bat Sistemaren erreformak egitea urgentea eta beharrezkoa izan arren, beharrezkoak baitira etorkizunera begira Sistemaren iraunkortasuna bermatzeko eta horrela gure adinekoei bizisari duinak eskaini ahal izateko.

Horretarako, Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoaren transferentzia erreklamatzeko jarraituko dugu, indarrean dagoen Gernikako Estatutua betetz, Estatuaren geldotasunaren aurrean kudeaketa egoki bat ziurtatzeko biderik onena delako.

EAJk argi utzi nahi du politika publikoekin duen konpromisoa, eta, berezi-bereziki, hezkuntzarekin, osasunarekin eta gizarte zerbitzuekin, gizartearen garapen eta kohe-siorako berebiziko tresnak direlako. Garapen ekonomikoa gizarte kohesiorik gabe iraunkorra ez delako, eta desiragarria ere ez.

Politika publikoak efizientziaz hobetu daitezke eta hala hobetu behar dira, batez ere aukera berdintasuna eta egoerarik ahulenean dauden pertsonen babesa bermatzeko. EAJ protagonista izan da politika publiko solidarioak egiten eta aplikatzen beste ezein formazio politiko ez bezala. Oraingo euskal «Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta», ereduagarria gizarte bazterkeriaren aurkako borroka diseinuan eta arrakastan, horren adibide argia da. Euskadi lider egin dugu giza garapen iraunkorrean, balioetan, gizarteratzean eta gizarte kohesioan. Ikuspegi hori bera eramango dugu estatuko politika publikoetara.

EAJ politika publikoetan konpromisoa hartuta dago emakumeen eta gizonen artean benetako eta egiazko parekotasuna lortze aldera eta emakumeen aurkako bereizkeria eta indarkeria matxista mota guztiak errotik baztertze aldera.

EAJk Euskadiri eragin diezaiokkeen egungo ikuspegi eta tentazio birzentralizatzailearen aurka aurrez aurre egiten jarraituko du. Hortaz, nabarmendu behar da Ciudadanosek Ekonomia Itunaren aurka etengabe darabilen eraso, gizarte arloan ezkerak egiten dituen proposamen zentralistak, edo PPK aurkeztu eta Senatuak 2019ko otsailean onartu zuen mozioa, egin gabe dauden transferentzien katalogoaren eta negoziazio prozesuaren aurka, hau da, Gernikako Estatuaren edukia eta itun autonomikoa ukatzea: jauzi kualitatibo larri bat eta autogobernu ereduaren ukazioa.

Modu berean, Nafarroaren foru ahalmenen garapena, UPNren gobernuak eta gobernu zentralak zeharo mugatua (oraintsu PSOEn gobernuak Trafikoko transferentziekin egin duen ez betetzeak agerian utzi duen bezala), aldeztu egingo du EAJk Geroa Bairekin koordinatuta, koalizio horretako kide baikara.

EAJk salatu egiten du pluraltasun nazionala aitortzeko malgutasunik eza, eta elkarbizitzari konponbidea aurkitzeko giltza dela konturatu nahi ez izatea.

Indar politiko guztien artean eztabaida zintzo eta sakona egitea ideal bat da, baina gaur egun desideratum bat da espero daitekeen errealitate bat baino gehiago. Nolanahi ere, EAJk elkarriketa hori, negoziazioa eta ituna bultzatzen saiatzen jarraituko du konponbide bila.

Konponbide bilaketa honetan, zalantzarik gabe, Euskadin dauden barrendegien egoera anakronikoa sartu behar da (Trebiniu eta Turtzioz Billaberde), eta aitortu egin behar da, konponbidean hasteko, bertako herritarrek euren egoeraz duten iritzia emateko eskubidea dutela, eta, kasua bada, Euskal Autonomia Erkidegoko dagokion lurralde historikoan sartzeko eskubidea, Gernikako Estatutuak jasotzen duen moduan.

EAJren iritiz, estatutu dinamismo handiko nazioa gara, barne eraikuntzari oso lotuta azaltzen gara, hori errespetatzea, babestea eta aldezte bultzatzen dugu, eta Estatuari erreklamatzeko diogu.

Horregatik guztiagatik:

**EAJk konpromisoa hartzen du Estatuaren eta Hobe-tzeari buruzko legearen defentsa gogorra egingo duela, bai eta Ekonomia Itunarena eta Hitzarmenarena ere, hurrenez hurren EAEren eta Nafarroaren garapen ekonomiko sozial eta politikoaren tresna direlako. Eta autogobernu handiagoa lortzea bultzatuko du.**

**EAJk Euskadiren naziotasunaren aitortza eta, subiranotasun partekatua gauzatu, Estatuarekiko alde biko harremana aldeztuko ditu.**

**EAJk ezinbestekotzat jotzen du eta erreklamatu egingo du, halaber, Euskadik Batasunaren erabakiguneetan zuzenean parte hartzea.**





## › ERRESPETURIK HANDIENA ETA AURRERABIDEA ESKUBIDE ETA ASKATASUNETAN

EAJk tradizio luzea du giza eskubideen defentsan. Alderdi humanista bat gara, elkartasunaren balioak aldeztu dituen, eta, batez ere eta denaren gainera, pertsonaren duintasuna aldeztu duena. Beti erakutsi dugu hori eta kontaezinak dira arlo honetan aurrera egiteko dugun konpromisoa azaldu dugun nazioarteko gune eta parlamentuak, giza eskubideak hausten ziren egoeretan ekinbideak planteatuz, besteak beste, Mendebaldeko Saharan, Libian, Sirian, Turkian, Ekuatore Ginean, Nikaraguan eta Venezuelan. Euskadiren eremuan, arlo honetan aurrera egiteko ekinbide guztiei eman diegu bultzada Giza Eskubide eta Berdintasun Batzordean.

Pertsonaren eskubideen eta duintasunaren errespetua epaile ebazpenez espetxean dauden barneratuentzat ere bada; preso horien eskubideak ez dira gelditzen espetxeko atean. Gizarte baten heldutasun demokratikoaren maila bere sistema penalaren humanizazio mailaren arabera neur daiteke.

Bestalde, berreziketa eta gizarteratze printzipioak gaur egun baino indar handiagoz erabili beharko liriteke etorkizuneko legedian eta espetxeetako praktikan, berriro aztertuz bai indarrean dagoen zigorrak handitu nahia bai espetxe sistemaren -batez ere- ordaintze eredua.

Botere publikoak, gainera, behartuta daude genero ikuspegia eta zeharkakotasuna euren politika eta ekintza guztietan txertatzera, emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, nahi eta behar desberdinak kontuan har ditzaten, parekotasun gabezia guztiak baztertzerantz eta parekotasuna ekintza guztietan maila guztietan eta plangintza, betetze eta ebaluazio fase guztietan bultzatzera zuzendutako berriazko helburu eta jarduerak erantsiz.

Indarkeria matxistari dagokionez, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun honen adierazpen gorenaren -gizarte demokratiko batek ezin onar dezakeen giza eskubideen urratze bat- izaki, botere publikoak behartuta daude (Istanbuleko Hitzarmena) emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzera, hura jazartzera eta desagerrarazteko, eta emakumeak indarkeria matxistaren forma guztien aurka babestera, bai eta egindako kaltearen ordaina ematera ere.

Beste alde batetik, Justizia Administrazioa estatu deszentralizatu baten egiturara egokitu dadin behar diren erreformek egin gabe jarraitzen dute.

EAJrentzat hain garrantzi handikoa den gai honetan, konpromisoa hartzen dugu lan hauek egiteko:

- › **Justizia Administrazioa euskal errealitate autonomikora egokitzea.** EAJk antolakuntza judiziala Euskadin Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian burutzea aldeztu du, bata bestearen segidako instantzia prozesalak bertan amaitzea, kasazio errekurtsioa edo jurisdikzioaren ordena guztietan dagokion azken instantzia barne, salbuespen bakarrarekin, Estatu osoan, Auzitegi Gorenaren jurisdikzioa, alegia. Halaber, Botere Judizialaren gobernua Euskadiren esparruan, Euskal Justizia Kontseiluari legokioke, eta Ertzaintza izango litzateke, beti, euskal esparruko auzi polizia.
- › **Espetxe arloko transferentzia.** Transferentzia urgetea, Gernikako Autonomia Estatutuan jasotzen den bezala, azken berrogei urteotan EAJk behin eta berriro eskatu duena, Euskadin kokatuta dauden espetxeen kudeaketa eta espetxe legediaren betearazpenarako behar diren ahalmenak geureganatzeko.
- › **Herritarren eskubideak errespetatzea.** Aurreko legegaldietan onartu ziren eta herritarren banako eta taldeko eskubideen babesean atzerapausoak ekarri dituzten legeen aurka zuzen-zuzen. Konkretuki, Herritarren Segurtasuna Babesteko Lege Organikoa («moral legea» izenez ezagutzen dena) aipatu nahi dugu, izan ere joan den legegintzaldian lege hori aldatzeko ekinbide baten egilea da EAJ, baina ezin izan zen aurrera eraman PPK, PSOEek eta Ciudadanosok oztapatu zutelako.
- › **Giza Eskubideen Plana.** Giza Eskubideen Plan bat lantzeari bultzada ematea eta eskakizun hori egitea, bai atzerri politikako bai barne politikako neurri konkretuak, helburu argiak, ekintza estrategiak eta epeak izango dituen, emaitzak lortzeko balio dezan; haien artean, jarraipen eta ebaluazio mekanismo gardenak ezartzea, gizarteak eta Diputatuen Kongresuak kontrolatu eta aplikatuko dituztenak.
- › **Emakumeen eta gizonen parekotasuna.** EAJk gelditu barik egin du lan Emakumeen aurkako bereizkeria forma guztiak ezabatzei buruzko Tratatu (CEDAW) eta aukerako protokoloa benetan eta modu eraginkorrean aplikatzeko, bai eta politika publiko guztietan genero ikuspegia txertatzeko eta emakumeen eta gizonen parekotasun eta berdintasuna benetakoa eta eraginkorra izateko ere.



- › **Indarkeria matxista.** Indarkeria matxista borrokatzea, haren prebentziorako nahikoa baliabide erabiltzen direla eta biktimek (dagokien adingabeak barne) babesa, arreta eta justizia modu eraginkorrean lortu ahal izatea bermatuz; eta euren bizitza pribatu eta sozialean segurtasuna berreskuratu dezaten, eta pertsona duintasun osoa ere bai.
- › **Zigor Kodea berritzea sexu delituei dagokienez,** «manada» kasuarena bezalako epaiak saihesteko. Horretarako ezinbestekotzat jotzen dugu barne ordenamendu juridikoak egokitzea Emakumearekiko indarkeriaren aurkako borroka eta aurrezaintzari buruzko Hitzarmena (Istanbuleko Hitzarmena) osorik aplikatzen dela, eta Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunean hartutako neurriak osorik betetzen direla bermatzeko.
- › **Zigor Kodearen erreforma haurren babesari dagokionez.** Arreta berezia emango zaie adingabeen aurkako sexu delituei, prebentzio, jazarpen eta babes neurriak ezarritik. Preskripzio epe baliodunak ezarriko dira -gure inguruneko legedi efizienteen ildotik-honelako delituen jazarpena eraginkorra izan dadin eta zigor gabe gera ez daitezen.
- › **Duintasuna bizitzaren amaieran.** Ezinbestekoa da sozialki eta juridikoki eztabaida serio eta sakon bat egitea gai honetaz. Euskadin erabakitasunez eta ideia-argitasunez egin da aurrera arlo honetan, eta gaur egun pertsona guztiek dute arreta aringarri oso bat izateko eskubidea bere gaixotasunaren diagnostikoaren une beretik; arreta hori sakondu eta areagotu egin behar da oinarriko gaixotasunaren baliabide terapeutikoek euren helburu sendatzaileak lortzen ez dituzten neurrian edo paziente gaixotasunean galitzen doan neurrian. Gure iritziz oinarritzko arreta hori unibertuala eta irisgarria izan behar da, bai esparru soziosanitarioan bai bizilekuan; edozein tratamendu ez hastea edo geldiaraztea, baita bizitza mantentzera zuzendutakoak ere, pertsona guztien eskubide bat da, eta pertsonaren erabakiak informazioan oinarrituta egon behar du, bai tratamenduaren helburuak bai dauden ordezkari aukerak eta erabaki horrek ekar diezazkiokeen ondorioak ezagutu behar ditu.

Halaber, EAJn uste dugu gizarte heldu batean bizi garela, eta bai hiltzeko medikuaren laguntza bai eutanasia zigorgabetzera eraman gaituen eztabaida se-

rio eta argigarri bati ekiteko beharraren kontzientzia duela bizi garen gizarteak. Ildo horretan, hori praktikara eraman aurretik zorrotz bete beharko diren baldintza konkretuak eta orotariko bermeak argitasun osoz arautuko dituen lege integral bat behar da.

- › **Memoria Historikoaren Legearen aplikazio osoa.** Gerra Zibilean eta Frankismo garaian nazioarteko zuzenbide humanitarioko krimenak jasan dituzten biktimek egia, memoria, justizia eta ordaina izateko duten eskubidea modu eraginkorrean egikaritzea bermatzea.
- › **Salbuespenezko legediak.** Nazioarteko terrorismoa ezin bihur daiteke gure gizartearen sostengu diren balioak osatzen dituzten eskubide eta askatasunen atzerakadarako aitzakia. Legedi egokia eduki behar da eskubide eta askatasun horiei errespetu osoa erakustearekin bateragarria den proportzionaltasunarekin eta aplikazio hedakorrek onartu gabe aurre egiteko fenomenoari.
- › **Hizkuntza koofizialen errespetua.** Pertsonen euren hizkuntza propioa erabiltzeko eskubidea, koofizialtasunaren aplikazio zuzena eta bete-beteko erabilera aldeztuko ditugu Estatuko Administrazioaren mendeko esparru guztietan.
- › **Tratu txarren eta torturen prebentzioa, pertsekuzioa eta ordain ematea.** Nazioarteko erakunde publiko eta pribatuetako errelatoreek, bai eta herritarren defentsari ere, gomendatutako neurriak hartzea, atxilotzeko leku eta esparruetan ez dadin egon tratu txarrak eta torturak egiteko aukerarik. Era berean, egiten diren salaketak eta iraganen egin zirenak sakon ikertzea, azken hauek, lege-haustearen -halakorik gertatu bazen- preskripzioa gorabehera, biktimaren aitortza eta ordain ematea egin ahal izateko.
- › **Jurisdikzio unibertuala.** Botere Judizialaren Lege Organikoaren erreforma bultzatzea, agintari nazioarteko zuzenbideko krimenaren susmagarria den oro ikertu eta auzipetu ahal dezaten, delitua non gertatu den edo akusatua edo biktimaren nazionalitatea zein den kontuan hartu gabe.
- › **Biziarteko espetxe zigorrik ez.** EAJk aurrez aurre arbuatzen du «espetxealdi iraunkor berrikuzgarria», egitez biziarteko espetxe zigorra ezartzea baitakar. Aurreko legegintzaldi honetan lege proposamen bat

aurkeztu genuen indargabetzeko; PPK, PSOEk eta C's-ek soilik blokeatu eta eragotzi dute. Berrito aurkeztuko dugu «espetxealdi iraunkor berrikusgarria» indargabetzeko ekinbide bat.

› **Europako immigrazio eta asilo politika bat erabakitzea.** Immigrazioa –ekonomikoa eta babes eta asilo eskatzekoa–, bere izaera, dimentsioa eta globalizazioa kontuan hartuta, bai jatorriko herrialdeetan bai iragaitzako eta helburukoetan tratamendu komunitarioa eskatzen duen fenomeno bat da.

› **Bidaiderik gabeko adingabe migratzaileak ekitatez banatzeko neurriak hartzea.** Espainiako immigrazio eta asilo politika bat. Autonomia erkidego eta udalerrri batzuetan bidaiderik gabeko adingabe migratzaileen gainpopulazioa saiheste aldera, eta harrera baldintza duinak emateko, Estatu barruan banatzeko politika egoki eta orekatu bat bultzatuko dugu.

› **«Beroan» ez itzultzearen printzipioa bermatzea.** Babes eta asiloa eskatzen duten pertsonen trataera humanitarioari eta giza eskubideei buruzko tratatuak betez, atzerritartasun legedia erreformatzea planteatuko da, izan ere, «mugan errefusatzea» esaten zaiona egiteko aukera ematen baitu, igaro den legegintzaldi honetan egin dugun bezala, PP, PSOE eta C's-en blokeoak oztopatu badu ere.

› **Migratzaileen eskubideak bermatzea.** Pertsona horien Giza Eskubideen eta larrialdiko laguntza humanitarioaren errespetua benetakoa eta eraginkorra izan dadin egingo dugu lan, eta arreta berezia emango diegu ahultasun egoera berezian dauden migratzaileei.

Halaber, Barneratze Zentroetan askatasun gabe egotearen ordeko neurriak aplikatzen direla, atzerritarrek barneratzeko zentroen arautegia erreformatzen dela, migratzaileen eskubideak hobeto bermatzearen, eta tratatu txarren salaketak edo giza eskubideen bestelako urraketenak gertatzen direnean zehatz eta zorrotz ikertzen dela jagongo dugu.

› **Heriotza zigorraren aurkako borroka.** Giza Eskubideak aldezte, heriotza zigorra dagoen herrialdeetan, eta defentsa juridiko egokia, beste estatu batzuetan heriotza zigorrera kondenatutako espainiar pasaporteak duten herritarrei.

› **Pertsonen salerosketaren aurkako eta horien babeserako lege integrala.**

› **Oinarrizko Eskubideei buruzko nazioarteko tresnak berrestea,** oraindik berretsi gabe daudenak, hala nola Europako Gutun Soziala (berrikusia), oinarrizko eskubide sozial eta ekonomikoen bermagarri, eta gerrako eta gizateriaren aurkako krimenen preskripzioirik ezari buruzko Konbentzioa.

› **Giza eskubideekin konpromisoa hartutako atzerri politika,** bertan behera utziko ez dituen goragoko beste ustezko interes batzuen mesedetan. Geopolitikaren interesek ezin dute zalantzan utzi Mendebaldeko Europaren oinarri den ildo humanista, demokratiko eta soziala hirugarren herrialdeen barruan jokatzekoan.

› **Lankidetzaren konpromisoak betetzea.** EAJ jabetuta dago nolako garaia bizi dugun, baina, hain zuzen horregatik, gure elkartasun bokazioa beti bezain irmoa dela erakusteko garaia da. Horregatik, oraingo bertoko beharrak bistatik galdu gabe, aurrekontu publikoek nazioarteko lankidetzarako partiden pisua ganorazkoa izan behar da, eta justizia, aukera berdintasuna, haurren defentsa, genero berdintasuna, ingurumenaren iraunkortasuna eta Giza Eskubideen defentsa mundu guztian bermatuko duen garapen globaleko eredu bat bultzatu behar dute.

## › ETORKIZUN EKONOMIKOA

Espainiako ekonomia, urte batzuetan hazten egon ondoren, desazelerazioko bide batean sartu da. Erritmo galera hori Europako inguruneke ekonomiarik gehienetan ere ikusten da. Dena ikusita, beste ziklo ekonomiko bat hasten ari dela dirudi.

Desazelerazio honen jatorria, kanpoko pizgarriak desagertu edo moteldu direla izateaz gain, zenbait faktorek ziurgabetasun maila handia sortu duten dinamismo gutxiagoko ekonomia giro bat da: Brexita, protekzionismotik sortutako nazioarteko merkataritza tentsioak, nazioarteko tentsio geopolitikoak eta abar.

Gainera, eta ekonomia hazkunde jarraituak gorabehera, Espainiako ekonomian desoreka handiak daude oraindik, eta horiek arriskuan jartzen dute hazkundearen epe luzerako iraunkortasuna. Espainiako politika ekonomikoak ez du aprobetxatu giro ekonomiko ona hazkunde ekonomiko eta produktibitatea indartzera bideratutako erreforma garrantzitsuak egiteko, defizita eta zorra gutxitzeko, ez krisiaren ondorioz hartutako neurri batzuk, gizartearen zati handi bati kalte egin diotenak, atzera bihurtzeko. Adibide gisa, nabarmendu egin behar da Espainia estatuak langabezia estruktural maila handia duela, Europar Batasuneko handienetakoa (%15,4); produktibitate txikia; zor publikoa BPGd-ren %100 ingurukoa; desberdintasuna gehien hazi den EBko estatua dela, eta pobrezia, bazterkeria eta desberdintasun aldagai guztietan Europar Batasuneko gainerako herrialdeen aldean batezbestekoaren gainetik dagoela.

Globalizazioa, garapen teknologiko eta logistikoa, informazioa mugarik gabe jasotzea eta finantzatzeko modu desberdinak izan dira konplexutasun handia eman diotenenak jarduera ekonomikoari, eta horregatik politika publikoek kontuan hartu behar dute jokaleku berria efizienteak eta eraginkorrak izan nahi badute.

Testuinguru honetan, Espainia estatuak ez du nahikoa aurreratu enplegua, hezkuntza, berrikuntza edo pobrezia aurreratu aurreratu, hain arlo garrantzitsu horietan, EBk

2009an jarri zituen 2020rako helburuetara iristeko. Hor-taz, okupazio tasa %65,5 da %74 izan beharrean. I+G+b gastua BPGd-ren %1,2 da %2 izan beharrean. Berotegi efektuko gasen emisioa 2005ekoaren aldean %15 da %10 izan beharrean. Berriztagarrien partea %17,5 da, helburua %20 izan arren. Energia primarioaren kontsumoa 124,1 Mptb da 122,6 izan beharrean. Eskola uztearen tasa %18,3 da %15 baino gutxiago izan beharrean. Eta pobrezia arriskuak 12,2 milioi pertsona jotzen ditu, helburua 9,3 milioi baino gutxiago izan arren.

Euskadin egoera EBren helburuen ildotik dabil gutxi-asko. 2017an okupazio tasa %70,2ra heldu zen. 2018 amaieran langabezia tasa %10,2 zen, eta eskola uzte goiztiarraren tasa Europako txikiena, %7. Berotegi efektuko gasen emisioa %26 gutxitu zen 2005az gero. Pobrezia larriaren arriskua, AROPE adierazlearen arabera, %4,9 da Euskadin, %6,4 EB28n eta %10,7 Espainia estatuan. Honi dagokionez, esan beharra dago Gini indizea, herritarren diru-sarreraren diferentzia neurtzen duena, Euskadin %25,8 dela, EB28ko batezbestekoa %30,8, eta Espainiak gainditu egiten duela, %34,5.

Datorren legegintzaldiari zein abagune politikotan eta zein abagune ekonomikotan aurre egin beharko diogun aztertuta, Euskadiren ikuspegitik giza garapen iraunkor-rako eta gure autogobernua sakontzeko EAJren proposamenak Nazio Batuen Garapen Iraunkorreko 2030 Agendaren eta nazioarteko zenbait erakunderen gomendioen ildoan daude: inbertsioak hezkuntzan eta giza kapitalean; emakumeen eta nesken aurkako bereizkeria forma guztiak erroten kentzea; gizarte inklusioa eta desberdintasunak gutxitzea, eta kalitate instituzionala, lanpostuen maldatasunaren eta ziurtasunaren arteko oreka egokia bermatuz; industria, garraioa eta energia karbonogabetzea; eta, azkenik, egonkortasun makrofinantzarioa eta finantza publikoen iraunkortasuna.

## › GIZARTE POLITIKAK DESBERDINTASUNA MURRIZTEKO ETA ONGIZATE ESTATUA BABESTEKO

Desberdintasuna areagotzea Espainiako ekonomiaren desoreka nagusietako bat da, eta ikuspegi sozial eta ekonomikotik erronka nagusietako bat. Azken garai hauetan ikaragarri egin da atzera gizarte arloan, eta desberdintasunak areagotu egin dira.

2017 urtean, Eurostatek dioenez, Espainia estatuan 12,2 milioi pertsona baino gehiago daude pobrezia edo gizarte-bazterkeria arriskuan, EBren 2020rako helburua zifra hori 9,4 milioiraino jaitea bazen ere. Argi eta garbi, Estatuaren birbanaketa lana ez da inondik ere nahikoa izan errenten desberdintasuna areagotu ez dadin. Egoera hori bereziki larria da haurren kasuan, Espainia estatua EBko hirugarren herrialdea baita haur pobrezia tasa handiena dutenen artean, Errumaniaren eta Bulgariaren ondoren.

Ez dago hazkunde ekonomiko sendoa lortzerik gizarte kohesiorik gabe. Aurrekontu egonkortasuna eta gizarte politika binomio banaezina dira denboran iraunkorra izango den hazkundera bermatzeko.

Era berean, behar-beharrezkoa da demografiaren erronkari familia politikekin, erantzunkidetasunarekin, legezko immigrazioarekin eta enplegua eta ekintzaitza, batez ere emakumeena, aktibatzearekin erantzutea.

Gobernu zentralaren politika ekonomiko eta sozialek argi jarri behar dute lehentasun moduan enplegua eta pertsonen oparotasuna, krisiaren ondorio negatiboak desberdintasunak murriztuz konpentsatuko dituzten eta gizarte garatuei datzekien gizarte kohesioa bermatuko duten politika eta zerbitzu sozialekin batera.

EAJk argi utzi nahi du politika publikoekin duen erabateko konpromisoa, eta, berezi-bereziki, hezkuntzarekin, osasunarekin eta gizarte zerbitzuekin, gizartearen garapen eta kohesiorako berebiziko tresnak direlako. Garaipena kohesiorik gabe iraunkorra ez delako, hazkunde ekonomikoa kohesiorik gabe desiragarria ere ez delako.

Politika publikoak efizientziaz hobetu daitezke eta hala hobetu behar dira, baina haien helburuak galdu gabe, batez ere aukera berdintasuna eta egoerarik ahulenean dauden pertsonen babesa. Gure herritarren benetako beharrei erantzuten dieten politikak, iraunkortasun eta efizientzia printzipioen mendean orientatzen direnak. Babesik gutxien duten taldeek krisialdian galdu dutena berreskuratu ahal izateko gizarte politikak.

EAJn uste dugu herritarrak berdintasunez artatzeko modu bakarra kalitatezko zerbitzu publikoak baldintza berdinetan ematea dela.

**Lan bizi, bizitza pertsonala eta familiakoa uztartzen laguntzera eta zaintza lanetan erantzunkidetasuna bultzatzera** bideratutako jarduerak garatzearen alde ere ba-gaude.

Era berean, **osasun sistemarako sarbide unibertsala**, berdintasun eta ekitate printzipioetan oinarritua, defendatzen dugu.


**Jabetuta gaude etxebizitza izatea ere herritarren kezka bat dela, lehentasunez tratatu behar dena.** Gernikako Estatuaren arabera, etxebizitza politika EAEren eskumen bat da, eta lurralde esparru horretatik planifikatu eta gidatu behar dira garatu beharreko politikak. Nolanahi ere, Estatutik aplikatzen diren neurriak babestuko ditugu, betiere eskumen esparrua errespetatzen badute eta Euskadin dugun etxebizitza politikaren ildotik badoaz, hau da, epe ertain-luzera alokairua sustatzeko estrategietan oinarrituta, etxebizitzak sortzeko ereduan eta kudeaketan aldaketa bultzatuta eta egoera ekonomikotik eratorritzen diren larrialdi sozialeko egoerak, bereziki, artatuta.

Beste alde batetik, atal honetan ezin dugu ahaztu hirugarren sektorea, bere antolakundeen aniztasuna eta izaera desberdintasuna kontuan harturik, administrazio publiko horiekin modu koordinatu, lagungarri eta osagarrian jardun behar baita.

Arlo honetan, gure proposamenak hauek dira:

- › **Osasun arloan eskualdatu gabe dauden eskumenen transferentzia:** osasun prestakuntza espezializatua, plaza eta zentroyen egiaztapena, produktu farmazeutikoen legegintza, laneko gaixoaldi eta ezintasunen kontrol sanitarioa eta kanpo osasuna.

Sendagaien baimenaz, erregistroaz eta prezioa jartzeaz arduratzen diren organoetan Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak etengabe parte hartzea ere eskatzen dugu.
- › **Mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako autonomia pertsonalaren legea.** Estatuak Mendekotasun legeaz Euskadirekin dituen konpromisoak betetzea eskatzen dugu. Autonomia erkidegoek eta, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, foru aldundiek dute prestazioak kudeatzeko ardura, baina legearen arabera gobernu zentralarekin partekatu behar da horren finantzaketa. Nolanahi ere, lege hori berrikusi egin behar da eskumen inbasio argi bat zuzentzeko.
- › **Ikerketa bultzatzea eta prestazioak eta zerbitzuak hobetzea gaixotasun arraroen eta botika umezur-tzen kasuan, bai eta alzheimer eta neuroendekape-nezko antzeko gaixotasunetan ere.**
- › **Estatuan bultzatutako gizarte politikak babestea, herritarren bizi kalitate hobea badakarte, Euskadin egiten ari garenaren ildotik.**





## › BIZISARI DOI ETA DUINAK

EAJk konpromiso atzeraezina du euskaldun guztiekin belaunaldi guztientzat Gizarte Babeseko sistema iraunkor bat eratzen.

Babes moduetako bat aurreikustea da. Horrela, bada, beti pentsatu dugu gizarte aurreikuspeneko euskal sistema bat izatea, Gizarte Segurantza arloan eta bere araubide ekonomikoan estatutuak dituen eskumenak gureganatuz geure herritarrei estaldura emango diena, Gernikako Estatutuak xedatzen duen bezala. Gizarte-aurreikuspen sistema horrek iraunkortasun eta nahikotasun printzipioak bete behar ditu kopuruan; izaera publiko-koa eta atzeraezina; solidarioa eta belaunaldiartekoa; eta, esan dugun bezala, euskal erakunde publikoek gure lurraldean kudeatua.



Bizisari sistema aurreratuak gure ingurune herrialde garatuenetan eraiki dira elkarrizketa eta akordio sozial sakon batean oinarrituta, eta behar-beharrezko bizisari kultura bat lortzeko behar den informazio eta kontzientziazio sozialarekiko konpromisotik abiatuta. Horrela bakarrik diseina daiteke epe luzera egonkortasunezko eta segurtasun juridikoko etorkizuna emango duen bizisari sistema bat, eta, horregatik, sistema ikuspegi alderdikoi batetik zehazteko edo aldatzeko saio oro nahitaez porrotera kondenatuta dago.

EAJ ongizate estatuaren oinarritzko eta funtsezko zutabeetako bat izaten jarraituko duen bizisari sistema baten defentsaren aldekoa da; sistema publiko eta banatzailea, belaunaldiarteko elkartasunean eta denon artean sortutako aberastasunaren birbanaketan oinarritua, garrantasun giro batean bizisari duin eta iragargarriak bermatuko dituena, finantzaketa iturri jakinek sostengatua. Eta sistema publiko eta birbanatzaile horrek desafio berriei ere erantzuna eman behar die, besteak beste, demografikoei eta bere iraunkortasunari buruzkoei.

Halaber, EAJk, eta Europako gure ingurune kulturean dauden eredu konparatuei begiratuta (erantzun argigarriak eman baitituzte ildo horretan gure iritziz), egoki deritza bigarren zutabea deritzona edo enplegu sistemena garatu eta bultzatzeari, negoziazio kolektiboan oinarritutako enplegu sistemak, osagarriak eta inondik ere ez lehen zutabe publiko hori ordeztu edo ahultzeko asmoz eginak, horrela etorkizuneko aurreikuspenarekiko konpromiso gehigarri bat eta enpresek eta langileek nahi dutena, bizisari nahikoa eta iraunkorra izatea, bideratuko baita.

Hirugarren zutabea, bestalde, banako aurrezki planak izango lirakeke, eta horri ez liokete kalterik egingo, ondo ulertuta hauek guztiz osagarriak direla eta inola ere ez zutabe publikoaren ordeztukoak, etorkizuneko bizisariaren diseinuan pertsona eta familia bakoitzari esfortzu handiagoa egiteko aukera eskaintzen diona.

Printzipio horien mendean, bizisari doi eta duinak bermatzera orientaturiko proposamen hauek planteatzen ditugu:

› **Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoaren kudeaketa arloko eskumenak Euskadira eskualdatzea. Oraingo esparru juridikoa guztiz errespetatuz** eta bere batasuna zainduz eta elkartasun printzipioa errespetatuz, Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoaren kudeaketa eskumenen transferentziaren eskakizuna egiten dugu, Gernikako Autonomia Estatuaren 18.2 artikuluan eta aldi baterako bosgarren xedapenean xedatutakoaren arabera.

Kontua ez da, bakarrik, Gernikako Estatutua osorik betetzea, baizik eta gure herritarrei arreta sistema oso bat emateko behar den kudeaketa tresna batez hornitzea euskal erakundeak.

- › **Toledoko Itunaren espiritua berreskuratzea eta, bere baitan, KPlan oinarritutako bizisari eguneratze bat proposatzea.** Toledoko Ituna bizisari sistemaren iraunkortasuna bermatzera zuzendutako neurri eta gomendioak aztertu eta proposatzeko oinarritzko esparrua da. 2018 eta 2019rako EAJk bultzatu eta lortutako igoera orokorraren ildotik, bizisariak KPlaren arabera gobernatzea aldeztu dugu, balio irabazte hori behin betikoa izan dadin.
- › **Gizarte Segurantzako Bizisari Sistemaren Iraunkortasun faktorea eta Balioztatze Indizea arautzen dituen abenduaren 23ko 23/2013 Legearen zoritzarreko ondorioak indargabetzea, horrela ikusi ahal izateko formula berriak, Toledoko Itunaren barruan akordio esplizitu bat izango dutenak, argiagoak, seguru eta gardenagoak, eta kotizatzaile izan direnentzat ez hain atzerakoiak.**
- › **Genero arrakala eta bizisariak.** Bizisarien arloan genero arrakala ezabatzeko eta aurrea hartzeko Europar Batasunaren estrategia baten beharri buruzko Europako Parlamentuaren 2016/2061 Ebazpenaren ildoko neurriak.

Sistemak denbora luzean emakumeei ezarri zizkien kotizazio arloko disfuntzioen zuzentzaile aritu diren neurri puntualak ezartzea izan dute batez ere oinarri bizisari arloko berdintasun politiketik. Horretara, orain fikziozko edo osatutako kotizazioak (amatasun eszedentziak edo lanaldi murrizketak), denboraldi gehituak (erditzea) eta abar aplikatzea hobetsi da, baina, abaguneko egoerak artatzen zizutenez, ez dute izan ondorio gisa emakumeen eta gizonen bizisari estaldura parekatzea. Horregatik, eta orain arte hartutakoak mantentzea gorabehera, neurri estrukturalak hartzea bultzatuko dugu, kotizazio ibilbidea eteteagatik edo nahi gabeko kotizazio hutsuneagatik sortzen diren ondorioak saihesteko.

- › **Bizisari Sistemaren iraunkortasun finantzarioa bermatuko duten neurriak bultzatzea,** kotizazioak ordaindutakoaren araberrako prestazioak finantzatzeko soilik erabili behar direla kontuan hartuta, eta Sistemaren bermetan Aurrekontu Orokorrek egin behar dituzten ekarpenak gorabehera.
- › **Gizarte Segurantza Sistematik ez dagozkion gastuak berraztertu eta, kasua bada, kentzea,** besteak beste, Gizarte Segurantzako salbuespenak, hobariak eta enpresen kotizazio murrizketak, eta Gizarte Segurantzaren administrazio gastuak, Estatuaren Aurrekontu Orokorren kontura zuzenean finantzatu behar baitira.
- › **EAJk egoki ikusten du enpresa planak irmo bultzatzea.** Horretarako, negozioz kolektiboan helburu horretara eta negozioz kolektiboan suspertzen duten zerga politikak bideratzera orientaturiko enpresa planen garrantziaren berri eman beharra lan araudian sartzeko proposatzen dugu.
- › **Langile migratzaileak eta Gizarte Segurantza.** Migrazio politika funtsezko elementu bilakatu da oreka demografikorako, eta, ondorioz, lan merkatua garatu eta finkatzeko eta ekonomiaren hazkunderako. Aurrekoaren proiektio gisa, Bizisari Sistemaren indarbide eta bideragarritasun baldintza gisa ere bai. Azterketa guztiek baieztatzen dute bizisari sistemaren etorkizuna, zati batean, langile migratzaileak gehituta sostengatuko dela, eta horregatik ezinbestekoa da gehitze hori «legezkoa, segurua eta ordenatua» izateko neurriak hartzea, Marrakexen egindako Migrazioarako Munduko Itun adostu berriaren gomendioen ildotik (2018ko abenduaren 5 eta 6an).
- › **Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateratua erreformatzea, Bizisarien Erreserba Funtseko mugatzea erabiltzeko edo mugatzeko,** gehieneko % 3 hura berreskuratuz, aterabide hori salbuespenezko egoeretan bakarrik erabili ahal izaten jarraitzeko, ohiz kanpoko kontrol bideekin eta Bizisari Sistema Publikoaren iraunkortasun berme finantzarioaren mekanismo gisa.



## ► IRAUNKORTASUN ENERGETIKOA ETA KONPROMISO IRMOA INGURUMENAREKIN

EAJk etorkizuneko gizartearen hautu irmoa egin du. Garapena, aurrerapena, berrikuntza, lehiakortasuna eta hazkuntza ingurumenaren babes, berreskuratze eta biziberritzearekin oreka koherente eta arduratsuan gertatu behar den gizarte baten hautua. Klima aldaketaren erronka handiari aurre egin behar zaio gizarte ereduaren eta ongizate estatuaren hautu irmo eta arduratsu baten bitartez, ingurumenaren babesaren eta garapen sozioekonomikoaren arteko oreka etengabe gertatzen dela.

Baliabide naturalen eta energetikoen iraunkortasuna gaur egun behar bat ez ezik, politika publikoen lehentasun bat da. Garapen iraunkorreko estrategia batek, bere jarduera ildoan artean, efizientzia energetikoaren bultzada eta energia kontsumoaren murrizketa sartzen ditu, energia berriztagarrien sorkuntza eta erabilera sustatzea eta garraio iraunkorragoa bultzatzea; I+G+b inbertsioa indartzea, kontsumo iraunkorreko ohiturak zabaltzea eta hiri iraunkorrak garatzen aurrera egitea.

Energiaren eta erabilera energetikoen arloan, azken urteotan Euskadin efizientzia energetikoaren arloan eta emisio kutsagarrien murrizketan aurrerapen handiak izan ditugula nabarmendu dezakegu, batez ere industrian eta energiaren sorkuntzan sartutako aldaketa teknologikoei esker, baina eraikin eta etxebizitzaren iraunkortasunean eta hondakinen kudeaketan hobekuntzak egin direlako ere bai.

Zintzilik dagoen irakasgaia oraindik ere garraioan petrolioaren eratorrien kontsumoa murriztea da, sektore hori baita energiaren lehen kontsumitzailea eta beharbada datozen urteetan kutsatzaileena izatera irits daiteke, egoera hori konpentsatzeko behar diren neurriak martxan jartzen ez badira. Nolanahi ere, emisio murrizketa saihetsezin horretarantz egin behar den eboluzioak, nahitaez, lurraldeen errealitate ekonomiko industrialak kontuan hartu behar ditu, trantsizio ordenatu eta aurreikusle bat lortzen saiatu behar du, eta alarma sozial sortzen duten eta automobilgintza sektoreari kalte baino egiten ez dioten behaketa gezur edo zunda globoetatik ihes egin behar du, automobilgintzak Euskadiko industrian oso pisua handia izaki.

Energia eta klima aldaketa binomioa eredu energetikoa aldatzeaz eta karbono gutxiko ekonomia baterantz aurrera egitearekin duen harremanaz ari da, klima aldaketaren desafio globalaren ildotik, energia ulertu eta erabiltzeko modu berri bat, bere eraginak moteltzeko

neurriak hartzea eta hiri mugikortasun eta biziberritzean arreta berezia jartzea eskatuko baititu.

EAJk ingurumena osasun publikoaren baldintza gisa eta bihar-etziko belaunaldiekiko konpromiso gisa ulertzen dugu. Garapen iraunkorrak oraingo belaunaldiek etorkizunekoekin izan behar duen konpromisoa dakar, ardurak norbereganatzetik sortzen da, ondare naturala, paisaiak, lurraldeak eta ingurumena errespetatu, babestu eta zaintzeko erabakia hartuz.

Ingurumen iraunkortasuneranzko trantsizioak aldaketa handiak eskatuko ditu energia politikan, garraio sisteman, nekazaritza eta abeltzaintza eremuan, gure hirien hiri eraketako dinamiketan, gure industrietan ekoizten duten moduan, familiek hondakinak kudeatzen jartzen duten arretan, ur eta energia kontsumoan eta ondasun eta zerbitzuak erosteko eguneroko erabakietan.

Mugikortasuna berebiziko garrantzia duen elementu bat da, energiaren ikuspegitik efizienteenak eta kutsadura gutxiena dutenak diren alternatiben eta aukeren aldeko hautua eginez ingurune naturala zaintzea eta ingurumen kalitatea hobetzea helburu hartuta. Horretarako, ildo estrategikoak hauek izango dira: bidaiarien mugikortasun sistema integratu bat lortzea garraio publiko elektrikoa erreferentzia izanik (trena, metroa, tranbia eta autobusa); sistema logistikoa integratu bat sustatzea salgaien eskualdearteko banaketa bultzatzeko; garraio modu iraunkorragoak indartzea eta autoa banaka erabiltzeko ideia burutik kentzea, laguntzak emanaz, bestalde, efizientzia erabiltzeari eta energia iturri iraunkorrenei eta ingurunea errespetatzen dutenei, eta erabakietan, ingurumen irizpideak ez ezik, inpaktu akustikoarenak ere txertatuz.

Klima aldaketako politikak palanka handi bat dira energia iraunkorren eta ingurumena babestearen arloan aurrera egiteko. Klima Aldaketarako eta Trantsizio Energetikorako politikak, beraz, tresna giltzarria izan behar du karbono gutxiko ekonomia batera trantsizioa egiteko eta berotze globalaren aurkako Parisko Akordioarekin Estatuak EBren aurrean hartutako energia eta klima arloko konpromisoak lortzen direla bermatzeko. Ezinbestekoa da erabakiak hartzea ikatz industrian, nuklearrez, berriztagarriez, hornidura ziurtatzeaz, efizientzia eta aurrezte energetikoa sustatzeaz, mugikortasunaz, energia sareak elkarri konektatzeaz eta energia berri eta berriztagarriez.

Trantsizio energetiko hau egiteko, autonomia erkidegoekin koordinatzea ere beharrezkoa da, politika energetikoa egoki, adostuta eta lurralde bakoitzaren beharrak kontuan hartuta garatzeko sinergiak bilatuz.

Gainera, Estatuak praktikan tarifa energetikoan oinarritu du politika energetikoa, eta energiaren arloan Europak dituen helburuen ildotik erreformarik egin gabe, beraz oraindik fronte ugari ditu irekita arlo honetan: argindarraren prezio garestia, efizientzia energetikoko neurri gutxi, arau esparru ezegonkorak, besteak beste.

Beste alde batetik, eta «neguko paketea» dela eta, Europako Batzordeak 2016an aurkeztutako «Europar guztientzako energia garbia», herritarrek erabakietan eta energia transakzioetan parte hartzea bultzatu behar da. Eskaria gehienbat energia berriztagarrien bidez asetzera trantsizio energetikoa egiteak kontsumoak progresiboki elektrifikatzea eskatzen du eta gero eta modu deszentralizatuagoan, tamaina txikiagoarekin eta kontsumo puntuetatik hurbilago sortzea. Lehentasuna izango du, beraz, arau eskema berriak bultzatzea, argindar kontsumoak eta eskaintzak eranstea sustatzeko, eta energia biltegitratzea ere sustatzeko.

Euskadin oso jabetuta gaude problematika horretaz eta etorriko zaizkigun jokalekuez. Horregatik, eta debate zabalak egin eta adostasun zabala lortu ondoren, eskal administrazio publikoek, enpresek eta norbanakoek hartu behar dituzten konpromisoak eta eginbeharrak jasotzen dituen *Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa otsailaren 21eko 4/2019 Legea* onartu du Eusko Legebiltzarrak, Batasunaren jarraibideen ildotik.

Azaldutakoagatik, EAJk jarduera ildo hauetan lan egiteko konpromisoa hartzen du:

- › **Klima aldaketaz onartu gabe dagoen legedia bultzatzea**, energia beharrak eta eginbehar ekologikoak eta ingurumenarekikoak batean hartzeko, autonomia erkidegoekin koordinatuta eta hauen eskumenei eragin gabe.
- › **Konpromiso irmoa nazioarteko erabakiekin eta Paris-ko akordioaren proposamenekin**, hau da, 1990ekoaren aldean berotegi efektuko gasak %40 murriztea, energia berriztagarriak guztiaren %32ko kuotara heletzea eta efizientzia energetikoan %32,5 hobetzea 2030 urtean Europan, eta horretarako estatu, auto-

mia erkidego edo eskualde bakoitza banaka aztertu behar da berriztagarrietan kontsumoen murrizketan duten potentziala ahalik eta gehien aprobetxatzeko.

- › **EBren 2018/844 Zuzentarauaren transposizioa**, eraikinen efizientzia energetikoari buruzko 2010/31 zuzentzua eta efizientzia energetikoari buruzkoa, 2012/27 zenbakiduna, aldatzen dituen.
- › **Argindarraren prezioak**. Poolaren prezioak Europako merkatuekin homologatzeko moduak badira ere, kontsumitzaileek azkenean ordaintzen duten prezioa Europako altuenetakoa denez, beharrezkoa bihurtu da tarifaren egitura aldaketa bultzatzea, eta horniduraren ez diren politiken kostua beste finantzabide batzuetara aldatzea.

Era berean, enpresek prezio lehiakorragoak izateko merkatu mekanismoak gaitu bitartean, beharrezkotzat jotzen da, alde batetik, etenezintasun sistema bat berrikustea, industria elektointentsiboari egonkortasun eta ziurtasun esparru bat emango diona bere plangintzari dagokionez, epe luzeagorako produktuak ezarri, eta, beste aldetik, industria horien partaidetza handiagorako neurriak hartzea, esate baterako eransle figura, kontsumitzaile desberdinei eskari bateratua aurkezteko aukera ematen diona.

- › **Ekonomia zirkularra bultzatzea**. Ekonomia linealetik ekonomia zirkularra igaro behar da, eragiten dituen galerak minimora murrizten dituen ekoizpen eta kontsumo batera alegia. Ekonomia zirkularra aldaketa bat da baliabide naturalak erabiltzeko moduan, eta, ondorioz, ingurumenarekin ditugun harremanetan. Eredu zirkular berriaren produktu eta materialen balioa ahalik eta denbora gehien mantentzen da; hondakinak gutxienez murrizten dira, eta baliabideak berriro sartzeko berehalako ekoizpen zikloan, eta balioa sortzen dute ondasunak euren bizialdi erabilgarriaren amaierara heltzen direnean. «Murriztu, berrerabili, birziklatu». Gutxiagorekin gehiago lortzea da ekonomia zirkularren oinarritzeko printzipioa. Bereziki, giltzarri diren sektoreetarako efizientzia neurriak, esate baterako, eraikuntza, nekazaritzako elikadura, turismoa, bilgarriak, enbalajea, ehungintza, fabrikazio elektrikoa eta elektronikoa.
- › **Bultzada irmoa bioekonomiari**. Nekazaritza, basogintza sektorea, itsasoa eta hondakin organikoak eta

bere balio kateak integratuz, klima aldaketaren aurka eta EBren lehengaien eta energien mendekotasunaren aurka borrokatzeko tresna indartsuenetarikoa direlako.

- › **Estrategia energetikoa industrialari lotzea.** Trantsizio energetikoa, eredu energetikoa aldaketa egitea ez ezik, jokabidean, denbora errealeko informazioan, erabiltzaile mailako erabakietan eta abar ere aldaketa egitea eskatzen du, eta hori guztia balio erantsi handiko garapen teknologiko berrietarako aukera paregabea da, jarduera industrial berriak bultzatuz.
  - › **Pobrezia energetikoaren aurkako borroka,** energia politikan, gizarte politikan eta etxebizitza politikan neurri estrukturalak hartuz, arazoari errotik eta epe luzera aurre egiteko.
  - › **Energia berriztagarrien sustapena.** Energia berriztagarrien eta argindar sorkuntza dibertsifikatzearen sustapena, ekonomia zirkularren bitartez ekoizpen prozesuetan materialak eta energia efizientiaz aprobetxatzea pizgarritz hornituz.
- Berriztagarrien mix energetikoa biomasak eta bioenergiak duten potentziala aitortzea orain duten ekarpenaren arabera, erabilera termikoaren edo kogenrazioaren, hurbiltasunekoaren eta *district heating*-aren hautua eginez.
- › **Banako eta partekatutako autokontsumoaren hautu irmoa,** argindarraren fakturan aurrezteko eta kontsumitzaile txikia energia berriztagarriaren sorkuntzan sartzeko formularik onena delako.
  - › **Minihidraulikorako berariazko araudia sortzea,** errentagarria izan dadin.
  - › **Efizientzia energetikoaren funtsa.** Euskadiri dagozkion funtsen kudeaketa bultzatzea.
  - › **Ikatz indarretxeak eta zentral nuklearrak apurka-apurka ixtea.** Garoñako indarretxea desinstalatzea, eta bere hondakinak ere bai, eta eskualdearen berriktatze ekonomikoa bultzatzea.
  - › **Gasa trantsizioko erregaitzat erabiltzea,** 2050ean emisiorik gabeko eredu bat izateko bidean.
  - › **Gasaren eta argindarraren handizkako merkatuetako gardentasuna.** Arau esparru egonkor eta iragar-

garri bat ezartzea eta Europarekiko elkarloturak areagotzea gas eta argindar garraioaren azpiegiturretan.

- › **Gas naturala garraiatu eta banatzeko sarearen digitalizazio progresiboa bultzatzea,** argindar sareetan dagoeneko egin den ereduari jarraituz.
- › **Oraingo energia zergen erreforma osoa bultzatzea eta zerga sistema berdea ezartzea,** energien CO2 emisioen kostuetan oinarrituta.
- › **Energia trantsizioko funts baten sorrera bultzatzea,** autonomia erkidegoek kudeatua, zerga sistema berdetik aterako litzatekeena.
- › **Argindarraren iruzurra.** Plan integral bat bultzatzea argindarraren iruzurraren aurkako epeak eta zigor eredugarriak izango dituen.
- › **Europako energia ikerketako proiektuak bultzatzea.** Beharrezkoa da bultzada ematea enpresen elkarlarnari eta enpresek Europak energia ikerketako proiektuetan elkarrekin parte hartzeari, efizientzia energetikoaren, zaharberitze energetikoaren, energia biltegitratzearen eta itsas energien arloetan.
- › **Errepidezko garraioaren eraldaketa.** Arazo nagusietako bat da, 2017an berotegi efektuko gas emisio guztien % 25 horregatik izan zen eta. Ahalmen handiko bideen kudeaketaren eta garraio adimentsuko sistemen eredu iraunkor bat landu behar da.
  - Burdinbidea sustatu, gutxiago kutsatzen duten beste garraiobide batzuen osagarritasunarekin.
  - Errepidezko garraio astunerako gas naturala ezartzea eta ibilgailu arinerako argindarra bultzatzea.
- › **Garraio publiko iraunkorra.** Garraio publikoa karbonogabetzeko neurriak hartzea urgentea da mugikortasun efiziente eta iraunkorra sustatzeko programekin eta joan-etorri beharrak gutxitzeko hiri egitura eraginkor eta dentsifikatuekin.
- › **Garraio pribatu iraunkorra. Energia alternatiboekin dabilen ibilgailua eta birkargatzeko azpiegitura egokia bultzatzea.** Dabiltzan beribilak berritzeko pizgarriak eman behar dira, teknologiak diskriminatu gabeko trantsizio aldiak ezarriz eta energia berriekin mugikortasuna bermatzeko behar diren azpiegiturak garaturik aldaketei bidea erraztuz. Halaber, errepi-

dezko eta itsasozko salgai garraioko ibilgailuetan gas naturala sartzearen hautua egin behar da.

- › **Energia aurrezte eta efizientzia energetikoa eraikin pribatuetan.** Bizileku pribatuen sektorean bultzatuko dira energiari buruzko auditore lanak, efizientzia energetikoaren ziurtagiriak eta erregai konbentzionalak energia berriztagarrien irtenbidearekin aldatzea. Era berean, eraikuntza berriko bizileku sektorean nahitaezkoa izango da energia ziurtagiria, iturri berriztagarrien sistema zentralizatua izatea eta ibilgailu elektrikoetarako kargatze puntuen eraikuntza aurreikusita izatea. Hori guztia, eskumen autonomiko eta lokalei zor zaien errespetuaren mendean.
- › **District heating sustatzea,** beroa eta hotza hirian banatzeko, bai etxebizitzetan bai hirugarren sektoreko eraikinetan. Energia hornidura efizientearen eskari gero eta handiagoa errealitate bat da berotegi efektuko gasak gutxitzen ari diren etorkizunean. Indarretxe termikoen sistema berri honek biogas sistemak, biomasarenak edo kogenerazio sistemak ditu, eta abantaila ekologiko handiak eskaintzen ditu, energia iturri naturalak aprobetxatzen laguntzen baitute eta, efizientzia energetiko handia dutenez, CO<sup>2</sup> emisioen murrizketa lortzeko aukera ematen baitute. Hori guztia, eskumen autonomiko eta lokalei zor zaien errespetuaren mendean.
- › **Administrazio Publiko eredugarriak** Parisko akordioko konpromisoak betetzen eta Euskal Autonomia Erkidegoko iraunkortasun energetikoaren legea eredutzat hartuta. Horretarako, administrazio publikoek jarduera energetikoko planak landu behar dituzte, lehentasunez, eta auditore lanak egin, euren instalazioetan, energia aurreztera eta efizientziara orientatuta eta zuzenduta, eta energia berriztagarriak erosteko lehiaketak eta energia iturri berriztagarrien hornidura ere bultzatu behar dituzte.

Helburua da lurraldea antolatzeko tresnek iraunkortasun energetikoaren azterketa bat eduki dezatela, iraunkortasun energetikoaren ebaluazio bat, eraikinetan eta azpiegituretan energia berriztagarrien ebaluazio bat, mugikortasun azterketak eta argikuntza publikoaren azterketak jasoko dituen. Gainera, administrazio publikoek instalazioak, tresnak, ontzidiak eta ibilgailuak berri beharko ditute, erregai alternatiboekin energiaren aldetik iraunkorrak izan daitezen.

- › **Ura. Ureztatzeak.** Uraren erabilera arrazionalizatzea bultzatuko dugu, uraren kalitateari buruzko Europako Zuzentarauaren ildotik, klima aldaketaren efektuen ondorioz ur baliabideak gutxituta dauden giro honetan. Sare hidrografikoa oinarrizko azpiegituretat hartu behar da, hidraulikoa ez ezik ingurumenarena ere bai, eta modu aktiboan kudeatu behar da bere funtzionaltasuna hobetzeko operatibotasun hidrológicoarekin eta Uraren Esparru Zuzentarauaren printzipioekin koherentziaz jokatzuz.

Era berean, uraren erabilera iraunkor bat bultzatzen jarraituko dugu industria, nekazaritza, zerbitzu eta etxeko arloetan eta ur hornidura bermatzeko behar diren obrak bultzatuko ditugu.

## › XXI. MENDEKO IKASKUNTZA EREDUA: HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETA

Hezkuntzak pentsamenduaren eta sinesmenen pluraltasun eta askatasunaren errespetua bermatu behar du, eta giza eskubideak eta aniztasuna. Dohain horiek guztiak dituen hezkuntza ematea gizarte kohesioan eta iraunkortasunean inbertsioa egitea da. EAJn hezkuntza ulertzen dugu gizarte ikasi, tolerante, begirunetsu, solidario eta kontziente bat eraikitzeke ganga giltzarri bezala.

Ildo horretan, Euskadin, hezkuntza eredu propio bat lantzeko dugun ahalmenari jarraiki, Gernikako Estatu-tuaren 16. artikuluan eta Konstituzioaren lehen xedapen gehigarrian jasotako moduan, XXI. mendeko herritarrei egokitutako hezkuntza integral baten hautua egiten dugu, kultura zientifikoa eta humanitateak konbinatuko dituen hezkuntza, bizitza guztiko ikaskuntzarekin osatuta, eta ikasleari ikuspegi kritikoa eta errealitatea aldatzeko emango diona. Izan ere, ondo prestatutako giza kapitala metatzea funtsezko estrategia bat da Euskadiren etorkizunerako. Horregatik, hezkuntza funtsezko faktoretzat hartzen dugu aurrerapen ekonomikoa eta ongizatea sortzeko, eta gure hazkuntza ekonomikoaren eredia indartu eta gure ekoizpen ehunaren lehiakortasuna areagotzeko.

Ildo horretan, gure enpresa ehunaren erronka handiek, eta horiek lortzeko prestakuntzak jokatzen duen rolak, oraingo **Lanbide Heziketa** ereduaren eraldaketa bat eskatzen dute. Euskadin emaitza onak lortu ditu eredu horrek, baina eboluzionatu egin behar du. Hiru zutabetan oinarritzen den prestakuntza batean aurrera egiteko oinarriak jarri ditu; zutabe horiek heziketa, berrikuntza eta ekintzaitza dira.

EAJn konpromisoa hartzen dugu lanean jarraitzeko, lanbide heziketa gero eta aurreratuago bat garatzen eta zabaltzen, posibilitate berriak ezartzen, erantzukizun berriak eta helburu berriak, behar desberdinak asetzeko eta oso aldaketa azkarreko egoerak gainditzeko balioko digutenak, horretarako aurretiaz, malgutasunez eta efizientziaz lan eginez etengabeko berrikuntzaren bidetik eta bikaintasunaren bidea harturik.

Hezkuntza sistemaren eta enpresaren arteko lotura hobetuko duten neurriak bultzatu behar dira, atzerriko talentua erakartzeko eta langile zerrendak berritzeko prozesuen plangintza, koerantzukizuna eta lan eta familia bizitzak uztartzea erraztuko duena. Gainera, etengabeko ikaskuntzaren hautua egiten dugu funtsezko giltzarri delako langileen enplegarritasuna eta enpresen lehiakortasun ardatza hobetzeko.

Aurreko guztiagatik, EAJk lan egiteko konpromisoa hartzen du:

› **LOMCE.** LOMCE ordeztu beharrak, hezkuntza arloari eta bereziki euskal hezkuntza komunitateari hainbeste kaltea egin diona aldatu beharrak, arlo honetan Gernikako Estatuak jartzen dituen ardatzak errespetatuko dituen lege berri bat landu beharra dakar. Horrela, 16. artikulua araberaren eta Konstituzioaren lehen xedapen gehigarrian xedatutakoa aplikatuz, «irakaskuntza, zabalera, maila, gradu, era eta espezialitate guztietan, Euskal Herriko Komunitate Autonomoaren kompetentzian [eskumenean] dago». Euskadiri hezkuntza lege eta eredu propioak egiteko, onartzeko eta betearazteko ahalmena ematen dion berezitasun eta eskubide horren aitortza eta begirunea jaso beharko lituzke Hezkuntza lege berriak.

Era berean, arlo honetan Euskadik duen eskumen esparruan gertatzen den esku sartze ororen aurka jarriko gara, eta errefusatu egingo ditugu hezkuntzaren birzentralizazioa eta uniformizazioa.

› **Digitalizazioa.** Digitalizazioaren garapenak metodologia eraldatzea eta ikaskuntza testuinguru berriak garatzea dakar, kompetentzia digitalaren curriculum planteamendu berri bat eta hezkuntza etapak eguneratzea edo birkonfiguratzea.


› **Elkarbizitzarako eta ekitaterako esparru komun bat zehaztu** behar da, aniztasunaren balioa indartuko duena, bereizkeriarik gabeko eskolaratzea bermatuko duena eta hezkuntzaren erantzunak eta jokarakerak ikasle bakoitzak dituen beharretara eta ikasketa ahalmenetara egokituko dituen, koerantzukizunetik abiatuta.

› **Elkarbizitza hezurramitze ardatz bihurtzea** inklusioa eta ekitatea bultzatzen duten hezkuntza politika eta programetan. Horrek orain dagoen aniztasuna aitortzea, hezkuntza bazterkeria edo diskriminazio modu guztiak gainditzeko, ikasle taldeen kohesioa eta guztiak indartzea, ikasle taldeen kohesioa eta guztiak indartzea aukera berdinekin bermatzea dakar.

› **Hezkuntza sistemaren kalitatearen aldeko hautua** bikaintasunerantz, ekitatea, gizarte kohesioa, herritar-tasun aktiboa, balioetan hezteko bultzatuz. Oinarriko eskubideen errespetua eta aniztasunaren defentsa.



- › **Unibertsitatea.** Unibertsitateak nazioartekotzeko hautu irmoa. Horretarako, unibertsitateek euren erabaki estrategikoen plangintza egiteko duten autonomian sakondu behar da, eta finantzaketa sistema hobetu, campusak benetako nazioarteko bikaintasun campus izan daitezen, eskaintzagarik Europako beste latitude batzuetako ikasle-irakasleak erakartzen dituztenak, eta unibertsitate-enpresa harremanean sakontzen ere jarraitu behar da, izan ere unibertsitateko ezagutza ezinbestekoa baita gure enpresa ehuna berritzen laguntzeko.
- › **Euskadiko lanbide heziketaren lidergoa mantentzea** bikaintasunezko heziketa gisa, euskal ekoizpen ehunari balioa emango dion enplegu sorkuntza sostengatua ahalbidetzeko eta heziketa horretan parte hartzen duten pertsonen enplegarritasun aukerak sendotzeko. Ildo horretan, euskal LH sistema kolokan jartzen duen edozein legegintza ekimenen aurka aurrez aurre jarriko gara, orainsu PSOEek onartu berri duen praktiken kotizazio sistema arautzen duen Errege Lege Dekretuaren aurka bezala.
- › **Lanbide Heziketako ikastetxeen eta enpresen arteko elkarlana eta lankidetzaren bultzatzen jarraitzea** LH dualaren ereduak sendotzen, ekoizpen ereduaren kualifikazio premiak bat etor daitezen ekoizpen sektore guztietako lanpostuak okupatuko dituzten pertsonen prestakuntzarekin, horrela lor dezagun prestakuntza, kualifikazioa, ekoizpen sektoreak eta lan merkatua bide beretik aurrera joan daitezela.
- › **LH ikastetxeetan berrikuntza aplikatuaren garapena babestea**, bai ikaskuntza metodologia berrien ezarretan aurreratzen bai ETEei laguntzen berrikuntza produktuetan eta are ekoizpen prozesuetan ere aplikatzea hobetu ahal dezaten.
- › **Iraunkortasun eremuan aurrera egitea**, bioekonomiari, eraikuntza adimentsuari, osasunari eta ekonomia zirkularri buruzko lanbide heziketaren esparruan zenbait ingurune besarkatuz.



## › EUROPA

Europar Batasuna proiektu ekonomiko bat baino gehiago da, gizarte proiektu bat dakar.

2008an eztanda egin zuen ekonomia eta finantza krisiak agerian utzi zuen arkitektura instituzionala ez zela nahikoa izan hari aurka egiteko. Hori horrela dela konaturatzeak, azken urteotan, euroguneko ahultasun fiskal nagusiei ekitea ekarri du: ikuskapen eta ebazpen mekanismoak, finantzaketa tresnak, besteak beste, baina hirugarren zutabea deritzonari artean aurre egin gabe, hirugarren zutabe hori Europako finantza etxeetan herri-tarrek gordailutan jarritako aurrezkiak segurtatzeko gordailu mutualizatuen berme eskema bat izaki.


Gainera, eta azken urtean, Europar Batasunaren bilakae-rak behar den Europa ereduaz hausnarrarazi diguten zenbait jazoerak (iheslarien krisia, Italiako aurrekontua, jaka horidunak, ekonomiaren desazelerazioa) eta Erresuma Batua Europatik ateratzeak (Brexit) markatuta egon da; oraingo ziurtasunik gabeko irteera, EBko herrialdeetako ekonomietarako aukera bihur daitekeena, egoki kudeatzen bada.

Europaren osatze proiektuak duen zailtasuna agerian geratzen ari den jokaleku konplexu batean bagaude ere, EAJk uste du Europar Batasuneko kide izatearen abantailek ez dutela ematen zalantzarako biderik eta beharrezkoa dela Europako herri erakundeak ekonomia arloan indartsuagoak izatea Europa kohesionatuko, ekonomikoki lehiakorrago eta sozialki aurreratuko baten aldeko hautua garatzeko, pertsonak haren politiken erdiguneko ardatzean kokatuz. Europa gehiago behar dugu eta nahi dugu, beti Euskal Herriaren zilegizko nahi eta eskumenen errespetuaren esparruan.

EAJn Europar Batasunaren barruan tresna ekonomikoak sendotzeko planteatzen diren ekinbide guztiak babestu eta bultzatuko ditugu, sinetsita baikaude Europa ekonomiko bat funtsezkoa dela munduko lehiakortasunaren erronkari ekin diezaiozun, behar dugun dimentsioa irabazteko eta horrela ekonomia global berrian lidergoa mantentzeko behar diren berrikuntzan eta sinergien garapenean oinarritutako Europako agenda ekonomiko komun batek eskatzen duen bezala.

Konkretuki, proposatuko dugu:

- › **Banka Batasuna osatzea** (hirugarren zutabea): Gordailuak Bermatzeko Europako Funtza, gordailu guztiak berdin segurtatzeko.
- › **Batasun Fiskalerantz aurrera egitea** hazkuntza ekonomikora eta enplegu sorkuntzara orientatuta.
- › **Eurobonuak**. Akordio politiko bat erdiestea, Europako zorraren rating batekin, herrialdeen defizita finantzatuko duten eurobonuak jaulkitzeko.
- › **Munduaren garapen ekonomian garrantzitsuak diren herri erakundeekiko elkarlanean eta koordinazioan** sakontzea, hala nola, Nazioarteko Diru Kutxa, ELGA, G-8 eta G-20, herrialdeekiko alde biko edo alde anitzeko harremanak ahaztu gabe.
- › **Eskualdeei protagonismo** handiagoa ematea Europaren 2021-2027 estrategian.
- › **Lankidetzaren indartuen** tresna erabiliz, malgutasun handiagoaren eta lastertasun ugarien jokalekua bultzatzea, Europaren etorkizunari buruzko Liburu Zuria- ren arabera.





## › EGONKORTASUNA HAZKUNDE EKONOMIKO ETA SOZIALERAKO

Printzipio orokor gisa, EAJ aspaldidanik esaten ari den bezala, ekonomia krisialdia gainditu ondoren, hazkuntza eta berraktibazio ekonomiko eta sozialari aurre egiten lagundu diezagun egonkortasun makroekonomiko eta aurrekontuzkoaren hautua egin behar da, bestela, aurrekontu egonkortasunik eduki ezean ez baita egongo hazkunderik ez berraktibazio ekonomikorik.

Orain arte defizit publikoaren kontrola bazen politika ekonomikoaren ia aldagai estrategiko bakarra, ekonomiaren beheraldia gainditu ondoren eta hazkunderen desazelerazio xume baten aurrean, administrazio publikoen kudeaketa ekonomikoa zorrotzasunaren eta erantzukizunaren esparruan mantendu behar da.

Horregatik, aurrekontu politikari malgutasun handiagoa emango dion eta eskari metatua bultzatzeari ere lehenetasuna emango dion Europako politika ekonomikoaren berrorientazio bat eta gobernantza sendoago bat ez dagoen bitartean, finantzen saneamendua eta aurrekontu orekaren helburuekiko konpromisoa mantendu behar dira, iraunkortasun ekonomikoaren berme gisa.

Hala ere, eta erantzukizun printzipiotik, EAJk defizit publikoaren kontrola eta ekonomia berraktibatzeke beharrezko neurriak modu orekatuagoan konbinatuko dituen Europako politika berri baten alde egingo du, hazkunde ekonomikoari, enplegu sorkuntzari eta gure gizarte ongizateko sistemaren sostenguari laguntzeko.

Ildo horretan, eta zorrotzasuna eta erantzukizuna bistatik galdu gabe, EAJk Aurrekontu egonkortasun eta finantza iraunkortasunaren apirilaren 27ko 2/2012 Lege organikoa birformulatzearen hautua egingo du; batez ere, gastu erregelaren aplikazioa malgutzeko helburuz, autonomia erkidegoek eta toki erakundeek diru sarrerak maximizatu ahal ditzaten. Izan ere, aurrekontuaren oreka egoera batean, herri administrazioek gastu finantzarioki iraunkorretarako erabil ditzaketan baliabideetan muga larri bat dakar gastu erregelak.

Horregatik, EAJk, toki erakundeen eskariei jaramon eginez, administrazio publikoei aurrekontu egonkortasunaren eta iraunkortasun finantzarioaren printzipioak hausten badira bakarrik aplikatzea aldarrikatzen du, eta hori legea betetzea lortzeko legeak berak jasotzen dituen prebentziozko neurrien artean dago.

Halaber, EAJk uste du pertsonen oinarritzeko beharrekiko sentsibilitateak eta konpromisoak administrazio publi-

koen funtsezko ekintza printzipioa izaten jarraitu behar dutela. Funtsezko zerbitzu publikoak eta gizarte politikak bermatzea kohesioa eta bizi kalitatea oinarritzeko ardatza da. Ildo horretan, zorrotzasun ekonomikoa eta aurrekontuzkoa funtsezko zerbitzu publikoak bermatzearekin eta hazkunderen eta ekoizpen ekonomiaren bultzadarekin orekatu behar dira.

Kudeaketa ekonomikoak jarduera ekonomiko produktiboen garapenerako ingurunea, giroa eta baldintzak sortzeko balio behar du, ekonomia eta bere enpresa ehuna modernizatzearen eta dibertsifikatzearen hautua eginez.

Arlo fiskal eta ekonomiko-finantzarioan konfiantzaren, egonkortasunaren eta segurtasun juridikoaren printzipioak bermatzea funtsezko elementu bat da enpresa proiektuak garatzeari mesede egiteko. Finantza publikoen kudeaketa arduratsua eta defizitaren eta zorraren kontrolarekin konpromisoa duena ere bada funtsezko elementua jarduera ekonomikoa, inbertsioa eta berraktibazio ekonomikoa erraztuko dituen konfiantza ingurune bat sortzeko.

Era berean, Zerga sistemek nahikotasun finantzarioa bermatu behar dute, horrela inbertsio eta gastu lehentasunak bete ahal izateko, jarduera eta hazkuntza ekonomikoak oztopatzen ez dituen ber. Hau da, progresibotasuneko, ekitateko eta justizia sozialeko irizpideetan oinarritutako zerga sistema bat.

Testuinguru orokor horretan, EAJk ildo estrategiko hauek proposatzen ditu hazkuntza eta berraktibazio ekonomiko eta sozialari aurre egingo dion aurrekontu politika bat garatzeko.

› **Administrazio guztien konpromisoa.** Planteatzen den finkatze fiskaleko politikak administrazio publiko guztien konpromisoa eta elkarlana eskatzen ditu, nolahi ere malgutasun desiratua bilatuz eta itunduz.

› **Defizit helburu bereziak bultzatzea.** Orango banaketa arbitrarioa da, ez dio erantzuten irizpide ekonomiko bati. Azken aurrekontu ekitaldietan frogatuta geratzen ari da helburuen banaketa horizontal eta homogeneoa ez dela egingarria autonomia erkidego guztietan, batzuek ezartzen zaizkien plan ekonomikoak eta helburuak ez betetzen jarraitzen dutelako, eta horregatik helburu bereziak ezarri beharra dago. Horrela, kontuan hartuko dira, beste faktore batzuen artean, autonomia erkidego bakoitzak bere gastuez eta diru sarrerez egiten duen begiespena, ematen dituen zerbi-

tzuak, azken urteetan burututako finkatze fiskala eta, bereziki, foru erkidegoen autonomia fiskala, arautzen dituzten zergak igoz finantzatutako gastu politikak erabaki baititzakete.

Ez dirudi zuhurra, bada, Estatuak eta Gizarte Segurantzak sistematikoki bete ez dituen defizit helburuekin jarraitzea, autonomia erkidegoek eta toki erakundeek betetzearen eta behar dena baino gehiago betetzearen kontura. Azpisektoreka helburuetan desbideratze garrantzitsuak izanez gero, arazoak sor daitezke epe ertainean ekonomiaren egoera okerragoa bada, eta okerragoa izango dela espero da. Beraz, gure proposamena, sektoreka helburu bereziak ezartzeaz gain, helburu hori administrazio bakoitzak bere aldetik bete dezala eskatzea da.

- › **Gastu erregelaren aplikazioaren erreforma eta malgutzea.** Superabit emaitza edo diruzaintzako gerakinarekin finantzatzeko ahalmena lortzen duten administrazio publikoek gerakin hori askatasunez erabiltzeko ahala izan behar dute gastu finantzarioki iraunkorretarako erabiltzeko, betiere legeak ezartzen dituen finantza-zor eta berankortasun mailetan mugak gainditzen ez badituzte, eta erabiltze hori ez bada kontatzen gastu erregela betetzearen ondorioetarako.
- › **Iruzuraren eta zerga ihesaren aurkako borroka kargen banaketan ekitate eta justizia sozial handiagoa lortzeko.** Horretarako, Estatuak Ogasun guztien lan-kidetzak elementuak ahalbidetu behar dira.
- › **Zerga sistemaren erreforma.** Epe luzera funtzionatu duen erreforma bat, finantza publikoei eta ongizate estatuari iraunkortasuna emateko eta jarduera ekonomikoa pizgarritz hornitzeko. Finantza transakzioen gaineko Europako tasa barne hartu beharko luke, epe laburrean espekulaziozko transakzioak moteltzeko eta betiere bere kostua ez bada herritarren eta enpresa txikien eguneroko oinarritzko eragiketetara aldatzen. Euskadirekin itundu beharko da tasa hori.

- › **Finantzen erregulazio eta ikuskapen sistema erreformatzen aurrerapausoak egitea *twin peaks*** edo ikuskatzaile bikotea deritzon eredu anglosaxoierantz, non erakunde edo instituzio bat finantza etxean kaudimen eta egonkortasuna ikuskatzearen arduraduna den; eta beste bat, jokaera ikuskatzearena, erakunde arautzaileen arteko interes gatazkak saihesteko.
- › **Merkatu Batasuna Bermatzeko Legea aldatzea,** gai honi buruzko Europako araudira zuzen egokitzeko eta eskumenen mugak ez gainditzeko, gaur egun autonomia erkidegoen eskumenei zuzenean eragiten dien gehiegikeria baita.
- › **Blockchain edo bloke tartearen teknologiaren erronkei aurre** egitea haren erabilera edo garapen posibilitateei dagokienez.

## › INDUSTRIAREN, SEKTORE EKONOMIKOEN, BERRIKUNTZAREN ETA NAZIOARTEKOTZEAREN ALDEKO HAUTUA

Industria-sektore lehiakor bat izatea funtsezkoa da eskualde edo herrialde bateko ekonomiarentzat eta oparotasunarentzat, eta gainera, ehun ekonomikoaren kohesio-faktore bat da.

Industriak duen garrantzia funtsezkoa da ekonomian. Izan ere, enplegua, aberastasuna eta ongizatea sortzen inpartua izateaz gain, trakzio-eragina du beste hainbat sektoreen gainean, eta ondorioz, industria berariaz bultzatu behar da, halaberrez.

Industria-politika azkarra eta malgua izan behar da, etengabeko aldaketen aurrean azkar egokitzeko gaitasuna izango duena, eta enpresak estrategia aurreratuen bidetik eramango dituen, enpresei hazkunde- eta nazioarteko-tze-prozesuetan laguntza emango diena eta haien lehiakortasuna hobetuko duena. Estatuak orain arte aukeratu duen ereduak, Europar Batasuneko zerga-konsolidazioaren strategiak batez ere bultzatu duenak, lan-harremanen eredia narriatu du pixkanaka-pixkanaka, soldata-debaluazioaren politikak erabili baititu, eta lehiakortasunaren hobekuntza politika horiekin lotu baitu.

Sekula ez dugu bat egin "industria-politikarik onena existitzen ez dena da" dioen ideia horrekin. Estatuak egin dituen aurrerapenak oso malguak izan dira, ez du epe luzeko estrategiarik izan, eta ondorioz, industria-sektorea atzeratuta dago. Gehiegizko apustua egiten da balio erantsi gutxi sortzen duten eta beren desorekak konpontzen ez dituzten sektoreen alde, alegia, produktibitate-defizita, berrikuntza-gaitasun murriztua eta inbertsio urria, bai I+G arloan, zein ezagutza- eta kualifikazio-arloan ere, eta horrek eragin negatiboa eta nabarmena du sektore horien lehiakortasunean.

Baina Euskadik dagoeneko erakutsi du industria-politikaren eredu sendo baten bidez, epe luzera begiratzuz lan egiten duenaren bidez, enplegu, aberastasun eta ongizate mailak handitu ditzakeela.

Beraz, EAJn badakigu zer nolako garrantzia duen industria-sektore lehiakor bat izateak aberastasuna, enplegua eta ongizatea sortzeko funtsezko oinarri moduan. Enplegua enpresek sortzen dute, eta beraz, enpresak sortzen, finkatzen eta garatzen laguntzea lehentasunarekin ekin beharreko estrategia bat da.

Euskadiko industriaren pisua (% 24ko BPGd) Estatuko zein EB-28ren batez bestekoa baino handiagoa da. Beraz, bereziki garrantzitsua da digitalizazio-prozesu jasangarri ba-

tean oinarrituko den 4.0 ekonomiarantz eraldatzea. Izan ere, *big data*, hau da, digitalizazioa, lan egiteko, fabrikatzeko, erosteko eta negozioetan harremanak izateko modua aldatzen ari da. Beraz, industriak erronka horiei aurre egin behar die, erakundeen laguntzarekin, lehiakorra izatea lortu nahi baldin badu.

Digitalizazioaren erronkan helburua da berrikuntza zientifikoan eta teknologikoan aurrera egitea, laugarren industria-iraultzari aurre egitea, eta enpresaren eraldaketa digitala bultzatzea. Erronka horri sektoreko jarduera artikulatuen, elkarren artean konektatuen eta elkarrekiko menpekotasuna dutenen bidez ekin behar zaio, enplegu gehiago eta kalitate hobekoa modu jasangarrian sortzeko helburuarekin.

Europako konbergentzia digitalerako bidea hartzeko, prestazio handiko informazioaren benetako autobideak sortu behar dira. Gainera, arreta berezia jarri behar zaio talentu digitalari, zerbitzu digitalen enplegua gehitu behar da eta enpresen merkataritza elektronikoa garatu behar da, merkatu berrietan sartu ahal izateko.

Hortaz, honako neurri hauek proposatzen ditugu:

› **I+G+b-ren aldeko apustua. Berrikuntza.** Gure ehun ekonomikoa eta soziala eraldatzeko giltzarriak honako hauek izango dira: ezagutza sortzeko gaitasuna, eta enpresen eta gizartearen berrikuntzarako gaitasuna. Sortutako ezagutza balio ekonomikoa eta soziala bihurtzea.

Ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza eredu ekonomikoa eraldatzeko eta industria- eta enpresa-ehun osoaren lehiakortasuna handitzeko palankak dira.

EAJk honako hauen aldeko apustua egiten du:

- Berrikuntza zientifikoan eta teknologikoan aurrera egitea, laugarren industria-iraultzari aurre egitea, eta enpresaren eraldaketa digitala bultzatzea.
- Ikerketa aplikatua sustatzea. Berrikuntza-politikak industriaren premietan oinarritzea. Horrela, ezagutzaren enpresek eta azpiegiturek lagundu egin dezakete, eta ez dira soilik oinarrituko sistema publikoan ezagutza sortzen.
- I+G+b-ren baliabideak eta inbertsioak kontzentratzen laguntzea, eskualde bateko produkzio-gaitasun potentzialekin sinergia argiak existitzen direnean.

- Ikerketaren aldeko apustua egitea enpresaren kudeaketa-, ezagutza- eta produkzio-ereduetan, tamaina- eta malgutasun-aldagaiak bateratuz.

- Arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaz sustatzea, industria-ikerketako edo garapen esperimentaleko proiektuen bidez.

- Araudi aldaketak sustatzea, Zientziari buruzko Legean ezarritako kontratazio-moduak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza sistema osatzen duten eragile publiko edo pribatu guztiei ezarri ahal izateko. Gainera, langileen birjarpen-tasen inguruko egungo mugapenak berrikusi beharko lirakeke.

- Europako Patenteari eragin bateratuarekin atxikitzea bultzatzea. Ekonomiaren ezagutza batean, non kontzeptu ukiezin asko existitzen diren, funtsezkoa da jakitea nor den nor, jabetza intelektualeko eta industrialeko sistema sendo baten bidez, Hortaz, Espainiak horretara atxikitzeke planteatzen duen erabilera-hizkuntzaren inguruko oztopoa gainditu behar da.

- Talentua sortzeko eta erakartzeko estrategiak sortu behar dira, mundu globalizatu bateko lehiakortasunaren mugarri moduan.

› **Arlo digitaleko berrikuntza** negozio-eredu berriekin lotzen da, serbituzazio- eta digitalizazio-prozesuen ondorioz sortuko direnak, bereziki industria aurreratuan, baita existitzen diren eragile digitalen potentzia eta esperientzia startupen dinamismoarekin batzearen ondorioz ere.

EAJk honako hauek bultzatzen lagundu nahi du: oinarri teknologikoa duten eta suspertzen ari diren enpresak, startupak, berrikuntza-ibilgailuak, kapital-erakarpenera, lana sortzea, eta ohiko lanbideen aldean beste aukera batzuk sortzea.

EAJk laguntza sendoa ere eman nahi du herritarren eskubidea bermatze aldera, sareak eta informazio-sistemak eta -zerbitzuak eskuratu ditzaten, "informazioaren gizartea" izenekoaren eten digitala saihesteko.

› **Zibersegurtasuna.** Zibersegurtasunaren kultura sustatu behar da, horren ezarpenarekin lotutako jarduerak ekonomikoa dinamizatu behar da eta sektore profesionala indartu. Gainera, Europar Batasuneko araudia betez, herritarren datu pertsonalak tratatzen dituzten

guztiek datu horien segurtasunerako behar diren neurriak ezarri beharko dituzte, eta agintaritzak publiko eskudunak tratamendu hori modu egokian egiten dela gainbegiratu beharko du.

Era berean, eta Europako araudiarekin bat, informazioaren gizarteko erabiltzaile guztiek sarean, sistemen eta zerbitzuen segurtasuna bermatu beharko dute, baita komunitatearentzako funtsezkoak diren zerbitzuak eta horiek erabiltzen dituzten azpiegitura kritikoak ere. Alde horretatik, instantzia guztietan eskatzen jarraituko dugu euskal sektore publikoko sarean eta sistemen segurtasuna eta ikuskapena CNI-aren (Inteligentzia zentro nazionalaren) eta Barne Ministerioaren eskuetan ez izatea, Errege Lege Dekretu batek orain xedatzen duen moduan.

› **Ekintzaitza eta barne ekintzaitza babestea.** EAJk ekintzaileen kultura sustatzearen eta aholkularitza eta laguntza finantzarioa osorik eta era malguan ematearen aldeko apustua egiten du, baita barne ekintzaitzaren aldeko apustua ere, hau da, enpresa barruan produktu, zerbitzu eta proiektu berriak garatzeko gaitasunaren aldeko apustua. Ekintzaitza bultzatzea funtsezko helburua da beren etorkizun profesionala diseinatze eta aldi berean beren komunitatean lan-aukerak sortze aldera hausnarketa, sormena eta berrikuntza garatzeko gai diren emakumeak eta gizonak atxikitzeke eta erakartzeko behar diren baldintzak ahalbidetzeko.

› **Internazionalizazioa.** Internazionalizazioa, bizi garen mundu global honetan, premia bat da. Gure enpresak kanpora irekitzea, mehatxua izan ordez, aukera bat da, ez bakarrik hazkundera dagokionez, baizik eta baita enpresa-ehunaren lehiakortasuna ahalbidetzeari eta negozio-aukera berriak hautemateari dagokionez ere.

EAJk honako hauen aldeko apustua egiten du:

- Merkatu berriak irekitzea sustatzea.
- Laguntza-planak sustatzea internazionalizazio-prozesuan (ezarpen-azterlanak, bideragarritasun-planak, kudeaketa-ereduak, etab.).
- Finantzaketa-programak bultzatzea internazionaliziorako.
- Nazioartekotzeko helburua duten enpresen arteko kooperazioa sustatzea.

- Defentsa komertzialeko tresnak indartzea, kanpoko merkatuetarako sarbidea bermatzeko eta inportazioen lehia desleiala saihesteko.

› **Lehen sektorea.** Euskadi ez litzateke ulertuko lehen sektorearekin eta landa- eta kosta-eremuarekin duen loturarik gabe. Lehenengo sektoreak funtsezko balioa du Euskadirentzat, ez bakarrik ematen duen ekarpen ekonomikoagatik eta enpleguagatik, baizik eta lotura estua duelako herrialdeko identitate sozialarekin. Gainera, potentzial izugarri handia du lehiakortasuna eta iraunkortasuna hobetuko dituen eraldaketa teknologikoari ekiteko, baliabideen erabilera eraginkorragoa izan dadin.

Bestetik, sektore horri laguntza emateko honako hauek aldarrikatzen dira: landa- eta kosta-eremuak hiriguneeekin parekatzea azpiegiturei eta zerbitzuei dagokienez; landa- eta kosta-eremuak aktibo mantentzea; ustiapenen errentagarritasuna babestea garapen jasagarriko eta kalitatezko estrategia berritzaile baten bidez, elika-katearen balioaren hazkundera handituz.

Jatorri Deitura Babestuei eta Euskadin kokatutako lurraldeak eta instalazioak barne hartzen diren erkidegoaz gaindiko lurralde eremuko Adierazpen Geografiko Babestuei dagokienez, esaterako, Errioxako Deiturari dagokionez, behar diren araudiak aldatuko dira, eremuko jatorri deiturak eta araudi teknikoak eta administratiboak elkarrekin batera existitu daitezen, kudeaketa-gaitasun propioak izango dituztenak, Europako mahastizaintzako eta ardogintzako beste eskualde batzuekin gertatzen den moduan.

PAC-ari (Nekazaritza politika komunari) dagokionez, eskatuko du euskal erakundeek erabat ezarri dezaten araudi hori Euskadin, bai lehenengo mugarriari (zuzeneko laguntzei) dagokionez, bai bigarren mugarriari (landa-garapeneko laguntzei) dagokionez, egitura eta produkzio aldetik duten errealitatera hobetu egokitu daitezten. Gauza bera diogu Euskadiko lurraldeari eragiten dion ardoaren OCMaren (Merkatuen antolakuntza komunaren) inguruan.

Era berean, nekazaritza-aseguruak transferitzearen alde lan egingo dugu, euskal errealitatera egokitutako arriskuak kudeatzeko politika bat bultzatzeko, eta bereziki, arrisku- edo errenta-aseguruetan izena ematea orokortzeko, premia-koak baitira, kontuan izanik prezioen hegakortasuna eta merkatuen krisialdiak.

Nekazaritza-garapenarekin lotutako azpiegitura hidrologikoei (**ureztatzei**) dagokienez, "Plan Hidrologiko Nazionala" izenekoaren esparruan interes orokorrekoak moduan hautematen diren eta Euskadin beteazteke dauden hainbat azpiegitura betearaztea exijituko dugu. Alde horretatik, Euskadirako premia-koak moduan hautematen diren hainbat azpiegitura beteazteke exijituko dugu "Ureztatzen Plan Nazionala" izenekoaren esparru barruan.

Euskadiko baxurako arrantzako flotaren banaketa modu bidezkoago eta berdintsuago batean egin beharko da, Itsas Arrantzari buruzko Legean ezarritakoari kalterik egin gabe. Bestetik, eta Europak harrapaketa guztiak lehorreratzeko ezartzen duen obligazioa hertsiki betetzeari dagokionez, euskal arrasteko flota ez itozteko moduan egin beharko da hori.

Era berean, Euskadik bere Europako Itsas eta Arrantza Funtseko programa operatibo eta arrantzarako erakunde ordaintzaile propioa izatea proposatuko dugu, arrantzaren merkatuko eta merkataritzako politika Euskadiko premietara egokitu dadin, bere dibertsitate biologikoa kontuan izanik.

Era berean, aldarrikatzen jarraituko dugu, Europako nekazaritzarako eta arrantzarako negoziazio- eta erabaki- eremuen politikan Euskadik hitz-hartze eta presentzia zuzena izan dezan.

› **Enpresa txikiei eta ertainei eta autonomoei laguntza ematea.** Alderdi finantzarioei laguntzak emanez, berme-sistemak artikulatuz, kudeaketa-sistemak hobetuz, teknologia egokituz eta merkatu berrietan sartuz, arriskuak eta onurak partekatzearen bidez.

› **Hiriko merkataritza.** Merkataritza oinarritzako sektorea da, bai duen tamainagatik, bai gizarte mailan duen garrantziagatik eta hiriko bizitza egituratzeko duen gaitasunagatik. EAJn badakigu hurbileko hiriko merkataritzak zer nolako garrantzia duen. Izan ere, funtsezkoa da gure herriak eta hiriak antolatzeke, hirigintza diseinuari eta harreman sozialei dagokienez, hiri-eredu oparoa, atsegina, segurua eta elkarrekin bizitzeko modukoa eratzen baitu.

- Tokiko garapena dinamizatuko duten politika publikoen aldeko apustua egiten dugu, sektore horretako lehiakortasuna mundu gero eta globalizatuago eta profesionalizatuago batean bultzatze aldera, non

kontsumo-ohiturak aldatu diren eta non bai produktuaren zein zerbitzuaren kalitatea gero eta erabakigarriagoak diren erosketa aukeratzeko, eta beraz, ondorioak lortzeko.

- Era berean, gure konpromisoa azaltzen dugu finantzaketa-iturriak eta prestakuntza digitala eskuratzeko aukerak hobetzeko, eta negozio-eredu berritzaileak eta kudeaketa aurreratukoak sortzeko.

- 1/2004 Legea aldatzea proposatzen dugu, zeinaren bidez merkataritzako ordutegiak liberalizatu baitziren, jaiegun-kopurua handitu baitzuen eta turismo-jendetza handiko eremuak sortzea inposatzen baitzuen, udalerrien eskumenak inbadituz. Ordutegiek, merkataritza-establezimenduen funtzionamenduan funtsezko elementua izateaz gain, herritarren bizitzeko moduan eragiten dute, eta hiriko espazioak garatzeko baldintzatzaila dira. Establezimenduen ordutegia arautzea kontsumoaren eskaera jakin bati erantzuteko aukera zuzenena da, baita egokiena ere kontsumoaren errealitate sozioekonomikoa eta udalerriko kontsumo-joerak ezagutzeko. Horregatik, udalerriek arautu behar dute, beren Autonomia Erkidegoarekin batera, gai hori.

› **Ekonomia sozialari laguntza ematea.** Kooperatibismoa eta ekonomia soziala elementu garrantzitsuak dira ekonomia inklusiboago bat lortzeko. Izan ere, kalitatezko enpleguak sortzen dituzten enpresak dira, eta horien jarduerak hazkunderari laguntzen dio, kohesio sozial handiagoa lortuz, ingurumenarekin jasangarriagoa dena, eta bizi-kalitate handiagoa duena gizartearentzat.

› **Turismoa.** Turismoa, jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren faktore dinamizatzaile bat izateaz gain, tresna indartsua da internazionalizazio-prozesuak bultzatzeko eta merkatu berriak irekitzeko. Sektore ekonomiko hori ezin daiteke oinarritu soilik balio erantsi txiki batean, enplegu ezegonkorren eta aldi baterakoaren sorreran, soldataren devaluazioan eta alderdikieran.

Bisitzen gaituzten pertsonak ezagutzea eta haiekin kontaktua izatea funtsezkoa da ondoren beste lankidetzak aukera batzuei ekiteko erakunde edo kultura mailako enpresa-eremu teknologikoan.

Euskadi, gainera, lehiakortasun turistikoko burua da MONITURek neurtzen dituen eremu guztietan. Mu-

garri guztietako batezbestekoaren gainetik dago, eta ondorioz, 2010etik 2018ra bitartean gela bakoitzeko diru-sarrerak hazkunde handiena izan duen Autonomia Erkidegoa bihurtu da (% 43,8).

Beraz, EAJren konpromisoa zera da, industria turistikoa oinarri sendo batean antolatuko duten oinarriak indartzea, modu harmonikoan hasi dadin, hainbat merkaturako aukera guztiak aprobetxatuz eta kalitatezko helmuga turistikoa lehiakorrek eta berritzaileek eskainiz.

EAJren konpromisoa honako hauetan oinarritzen da:

- Helmuga turistikoen digitalizazioa bultzatzea.
- Lankidetzak publiko-pribatua sustatzea.
- Sektoreko profesionalizazioa bultzatzea.
- Etxebizitza turistikotarako araudi bat bultzatzea, Autonomia Erkidegoen eta Tokiko Entitateen eskumenak errespetatuko dituen, horiek arautu ditzaten etxebizitza horiek, berek ezagutzen baitituzte ondoen beren hiri-ereduak.

› **Genero-berdintasuna erabaki ekonomikoak eta finantzarioak hartzean.** Emakumeak oraindik ere gutxiengoak dira enpresen erabaki-zentroetan, bai Administrazio Kontseiluetan, bai Sektore Finantzarioan. Alde horretatik, dagozkion neurriak bultzatuko ditugu egoera horri buelta emateko, eta horretarako, martxoaren 22ko 3/2007 Legea, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrari buruzkoa, aldatzea eta egokitzea proposatuko dugu. Hain zuzen ere, VII. titulua, enpresen erantzukizun sozialari buruzkoa, eta bereziki, 75. artikulua, kotizatutako enpresetako administrazio-kontseiluetan emakumeek duten presentziaren ehunekoari buruzkoa; horretarako neurri eraldatzaileak sortuko ditugu, non besteak beste, emakumeen ordezkari-tza-ehunekoaren inguruan obligazio lotesleak ezarriko diren.

Gainera, enpresetako kulturaren bereizgarrietako bat lanegun luzeak dira, baita lantokian fisikoki egotea, lidergo-estilo maskulinoak, kontratazio eta mailaz igotzeko praktikan gardentasun-falta izatea ere; horren ondorioz, emakumeak desabantailazko egoeran gertzen dira. Beraz, lana, bizitza pertsonala eta familia-bizitza uztartzeko neurriak bultzatuko ditugu, baita genero-ikuspegia enpresetan zeharkako moduan txertatuko ere, beren jarduera eta erabaki guztietan.



## › ENPLEGUA, LEHEN MAILAKO ERRONKA

2012ko lan-erreforma, kaleratzea eta eskulanaren kostua merkatzeko helburu hutsarekin sortu zena, eta gainera, gizarte-eragileen adostasunik gabe onartu zena, ez da eraginkorra izan lan-merkatua dinamizatzeko, bereziki enpleguaren kalitateari dagokionez, eta eragin gaiztoa izan du, soldataren debaluazioa eta lan-baldintzen prekarizazioa ekarri baititu.

EAJren ustez, lanaren prekarizazioan oinarritutako eredu ezeinek ezin du balio gizarte bidezkoago bat sortzeko. Hortaz, gure ustez, etorkizuneko enpleguaren gaineko eztabaida bati ekin behar diogu nahitaez, elkarrizketa sozialean oinarrituko dena. Helburuak izan behar du lan-harremanen eredu bat berrezartzea, langileen eta enpresaburuen arteko boterearen orekan oinarrituz, eta kalitatezko enplegua sortuz. Hori lortzeko, gure ustez, Langileen Estatutuaren indarreko testuaren eraldaketa sakon bat egin daiteke.

Alde horretatik, lan-harremanek berariazko esparru bat izatea aldarrikatzen du EAJk; hau da, gure ingurunera egokitutako esparru bat. Izan ere, errezetak ezin dira orokorrak izan, baizik eta eremu geografiko eta sektorial bakoitzeko errealitatera eta ezaugarrietara egokitu behar dira, horrek bihurtzen baititu eraginkor. Enpresen eta langileen erantzunkidetasuna sortuko duten neurriak hartzea proposatzen dugu, etengabeko prestakuntzaren eta egonkortasunaren aldeko apustua egingo dutenak, enplegu berriaren elementu bereizgarri moduan, eta prekarizazioa ihes egitea izango dutenak ardatz. Jakina, enpresek behar besteko tresnak eta malgutasuna izan behar dute beren produktuen eta zerbitzuen eskaerara egokitu daitezten. Baina, aldi berean, enpleguaren sorkuntzarekin eta egonkortasunarekin konprometitu behar dira. Horrek guztiak, enpresei laguntzeko politikekin batera, langabezia maila murrizten lagunduko du modu egituratuan eta ez egoeraren arabera; hala ere, kontuan izan behar dugu fenomeno geldoa izango dela, nahitaez.

Orokorrean, gure ustez, Estatuko lan-arloko arazo nagusiak egiturazko langabezia maila altuarekin eta balio erantsi handiagoko enplegu berriak sortzeko ezintasunarekin lotzen dira, eta hori, halaber, lan-baldintzak merkatzeko eta prekarizatzeko lehiakortasuna bultzatzen duen egitura ekonomiko batekin lotzen da. Ezaugarri horiek bihurtu egin beharko lirake enplegu-politikaren norabide ezegoki hori aldatzeko, bereziki eragiten baitie gazteei, emakumeei eta iraupen luzeko langabetuei.

Horretarako, EAJk honako neurri hauek proposatzen ditu arlo horretan.

› **Lan-harremanen esparru propioa.** Euskadik autogobernurako borondatea eta eskubidea ditu, baita ezaugarri ekonomiko bereziak ere, hazkunderaren eta produktio-egituraren ereduari dagokionez. Beraz, erabat nahitaezkoa da lan-harremanen esparru autonomo propio bat izatea, Euskadiko enpresen eta ekonomia-aren premiei eta gizarte-kohesioa eta elkartasuneko gure balioei erantzungo dien laneko merkatu bat egituratu dadin.

› **Genero-berdintasuna enpleguan ere bai.** EAJren ustez, generoa dela eta diskriminaziozko edozer tratatu suposatzen duten oztopo guztiak kendu behar dira lehenbailehen. Horregatik, premiazkoa da genero-berdintasuna sustatzea eta bermatzea, baita enplegua eskuratzeko eremuan, lanbide-heziketan eta lan-baldintzetan. Gizonen eta emakumeen artean soldata-arrakala gainditzeko arloan, hau da, "kristalezko sabaia" izenekoak hausteko jarduerak sortuko dituzten irizpideak hartu behar dira, emakumeek parte-hartze berdinezalea izan dezaten erabakitze eremuetan, eta horrez gain, bizitza eta enplegua bateragarri egitea eta ordutegien arrazionalizazio-politikak sortzea sustatuko duten ereduak inplementatu daitezten.

Era berean, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrari buruzkoan, sartutako aldaketen jarraipena egitea proposatzen dugu, enpresen berdintasun-plänen alderdi, kontzeptu eta eduki guztiak betetzeari dagokionez, baita enpresek berdintasun-plan horiek izateko obligazioa betetzeari dagokionez ere, non lan-eremuan berdintasuna lortzeko beharrezko neurriak jasoko diren.

› **Enpleguaren eta Garapen ekonomikoaren aldeko ituna.** Enplegua sortzeko eta horren kalitatea hobetzeko lankidetzaitun handi bat egin behar da gizarte-sektore guztien artean. Itun horren funtsezko ardatza ekonomia lehiakorrago baten bidez enplegua sortzea izan behar da, hazkundera handiagoa izan dadin. Itun horrek, gai horretan eskumenak dituzten erakundeak eta eragile ekonomikoak eta sozialak hartu behar ditu, eta oinarri zehatzak eta finkoak izan behar ditu, hala nola enpleguaren egonkortasuna, etengabeko prestakuntza, lehiakortasuna, baita soldata produktibitatea.





rekin lotzen lagunduko duten mekanismoak bultzatzea ere, enpresak lehiakorragoak izan daitezzen, eta aldi berean, langileen eskubideak babestu daitezzen.

- › **2012ko lan-erreformaren aldaketa sakona.** Kontratazioa, kaleratzea eta lan-baldintzen aldaketak kausalizatu egin behar dira kontratuak objektibatuz eta negozio kolektiboa indartuz, eta hori eraginkorra izan dadin, dagokion errealitate ekonomikoaren irizpideak bete behar ditu. Horretarako, Langileen Estatutu berri bat bultzatzeko aukera izan behar da kontuan.
- › **Lanbide Heziketa Duala ezartzea maila guztietan.** Heziketa duala maila zabalago eta trinkoago batean txertatu behar da, prestakuntza horrek ematen dituen abantailak lanpostuan aprobetxatuz eta enpresen erantzunkidetasuna landuz gure gazteen gaikuntzan. Gainera, eta goi mailako gaitasunen prestakuntzaren inguruan enpresa eta unibertsitate eremuaren bidez existitzen den aldarriari erantzunez, unibertsitateko lanbide-heziketa dualaren berariazko eremua aintzatestea bultzatu behar da. Eta bestetik, laneko etengabeko prestakuntza landu behar da, batez ere premia moduan, eta ez hainbeste laneko politiken modalitate moduan, langileak etorkizunean laneko modu eta lanpostu berrietara egokitzeko premia sortuko baita.
- › **Langabezia-estaldura hobetzea.** Langabezia-estalduraren muga 36 hilabetera zabaldu behar da gehienez ere, eta laguntza horiek enplegarritasunarekin lotutako prozesuetan parte hartzeko laguntzekin lotu behar dira. Izaera unibertsaleko babes emateko mailara hurbildu behar gara, gutxienez langabetu kronikoei dagokienez, laneko merkatuan berriz ere sartzea bereziki zaila bazaie; hala ere, laguntza horiek emateko enplegua aktiboki bilatzea eta hartzaileek prozesu horietan parte hartzea ere exijitu daiteke.
- › **Langile autonomoak babesteko konbergentzia-prozesu bat ezartzea pixkanaka-pixkanaka.** Langile autonomoen eta inoren konturako langileen babes-sistemak gehiago bateratu beharko liriateke, Gizarte Segurantzako Sistemak babestutako gertakizunei dago kienez; era berean, prozesu hori hartzaileen aukera errealean arabera eman eta egokitu beharko litzateke.

- › **Kontratu-formulak sinplifikatzea.** Egun Espainiako Estatuan kontratu-mota kopuru handia existitzen da, eta horrek ez du inola ere argitasunik edo eraginkortasunik ematen lan-merkatua dinamizatzeko. Lan-merkatuaren erregulazioan pentsatu behar da berriz ere, bere zaurgarritasuna dela eta babestu beharreko berriazko eremuak, edo kontratu bereziki sentikorren berme-mekanismoak ahaztu gabe, esaterako, bekadunen kontratuak eta gazteen enplegua.
- › **Lanaldi mugatua berriz ere formulatzea.** Lanaldi mugatua berriz ere formulatzea modu eraginkorra da lanaldi osoan lan egin nahi ez duten pertsonen artean enplegua sortzeko babes- eta kontrol-bermeekin. Hala ere, egun, neurri handi batean, nahi gabeko partzialtasuna izaten da, eta batzuetan, baita iruzurrezkoa ere. Hortaz, iruzur- eta gehiegikeria-egoerak saihesteko, aldi baterako kontratuetan aparteko orduak egiteko aukera baztertzeari proposatzen dugu.
- › **Gazteen enpleguari lehentasuna ematea.** Kontuan izanik oinarritzko egoerak oso ezberdinak direla, gazteen enpleguaren prekarizazioa saihestu behar da, lehen enpleguko beken aukera gehiegi erabili izan baita; ondorioz, beken gehieneko luzapena 18 hilabetera mugatu behar da gazte bakoitzeko. Gazteak 30 urtera arte edo geroago arte ere lan eta soldata mailan etengabeko prekarietatean bizitzera bultzatzen dituzten neurrien aurka gaude.
- › **Lehiakortasun digitala.** Europar Batasunak definitutako eskumen giltzarrietako bat da herritar modernoaren curriculumerako, eta esan nahi du gaitasun berrietara etengabe egokitu behar dela. Azken finean, egokitzapen-prozesu bat da, denek behar dutena maila pertsonalean garatu daitezen, baita herritar aktiboak sortzeko, gizarteratzeko eta enplegurako ere.
- › **Desgaitasuna edo gaitasun bereziak dituztenen laneko integrazioa.** Helburua da Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen Nazioarteko Hitzarmena eta indarreko legeria betetzea, desgaitasuna duten langileen integrazio-ehunekoari dagokionez. Gure helburua da kolektibo hori lan-eremu arruntan integratzen lagunduko duten baldintzak sortzea edo ahalbidetzea, behar ditzaketen laguntza integraleko neurriei kalterik egin gabe. Horrela, besteak beste, gure taldeak nabarmentzen jarraituko du (aurreko legerietan egin zuten moduan) desgaitasuna duten pertsonentzako enplegu publikoko erreserba-kupoa handitu egin behar dela, sektore pribatuan sar daitezten sustatu behar dela eta bermeak ezarri behar direla aurreikusitako kuotak bete daitezten.
- › **Genero-berdintasuna kontratazio publikoan.** Eusko Jaurlaritzak, 2019ko martxoaren 5ean instrukzio bat onartu zuen, zeinaren bidez emakumeen eta gizonen arteko soldata berdintasuna lortzeko klausulak eta kontratazio publikoko soldata-arrakalaren aurkako neurriak jasotzen baitira. Jarduera-ildo hori Estatuko Administrazio Orokorreko kontratazio-organo guztietara zabaltzea proposatzen dugu, kontratazio-agirietan emakumeen eta gizonen berdintasunerako esleipen-irizpideak txertatuz.

## › GARRAIO-AZPIEGITURAK GARAPEN JASANGARRIRAKO

Garraio-azpiegiturak oinarritzkoak dira hazkunde ekonomikorako, bizi-kalitatea hobetzeko eta lurraldea ardazteko, eta modu erabakigarrian laguntzen dute enpresen lehiakortasuna hobetzen eta garapen iraunkorragoa izaten.

Azpiegiturak eragin zuzena dute lurralde- eta hiri-garapenean. Lurzoruak erabiltzeko politika mugikortasun-premiak handitzearen eta ibilgailu pribatuaren erabilera handitzearen erantzulea da. Beraz, EAJren ustez, hiri- eta ekonomia-garapeneko politikak mugikortasun-politikekin integratu behar dira.

Garraio-azpiegitura guztien transferentzia Euskadira eramateari lehentasuna emango diogu: portuak, aireportuak eta trenbideak. Horrela, modu eraginkorrean eta eragingarrian kudeatu eta garatu ahalgo dira garraio-modu eta -bide guztiak; izan ere, denboran zehar ikusi da Euskadin hobeto kudeatzen dela.

EAJk erabat sinesten du azpiegiturak diseinatu eta kudeatu ahal izateko, zerbitzua eman behar zaien herritarrek kontuan izan behar direla, eta horregatik, euskal administrazioek, Euskadiko herritarren premietatik hurbilen daudenek, izan behar dituzte azpiegitura horiek diseinatzeko, garatzeko eta kudeatzeko eskumen guztiak.

Horrela, hori oinarri harturik, EAJk honako hauek proposatzen ditu:

› **Foru Hitzarmenak eguneratzea errepide bidezko garraioari dagokionez.** Errepide bidezko garraioa ordenatzea, koordinatzea, ikuskatzea eta kontrolatzea, baldin eta Foru lurralde-eremutik igarotzen bada eta Estatuarekin eguneratzeke dauden Foru Hitzarmenetan jasotzen badira.

- › **Euskal Autonomia Erkidegoaren barrutik igarotzen diren aldiriko trenbideen azpiegituren transferentzia egitea,** garraio-sistemaren barruan integratzeko eta horrela, garraio-eskaintza handiagoa eta hobea emateko.
- › **Abiadura handiko sarea - euskal Y amaitzea,** hiriburu-eruetako lur-azpian geltoki berriak jarritz.
- › **Salgaien barnebide atlantikoa indartzea** (Red Trans-European Transport Networks, TEN-T).
- › **Euskal Autonomia Erkidegoan finkatutako hiru aireportuen kudeaketaren transferentzia egitea.** Bilboko, Forondako eta Hondarribiko aireportuak.
- › **Aireportuetako azpiegituren konexioa bultzatzea** Euskadiko garraio-sistema osoarekin, aireportu bakoitzean intermodalitatea garatuz.
- › **Pasaiaiko portuari interes orokorreko portuaren sailkapena kentzea.**
- › **Pasaiaiko badiaren etengabeko birsorkuntza garatzea, erakunde arteko akordioen bidez.**
- › **Nafarroarekin eta Akitaniarekin trenbide-sare berriaren konexioa bultzatzea,** Europa barneko sare atlantikoa erabat gara dadin.



## › ETIKA ETA GARDENTASUNA EKINTZA POLITIKO ETA INSTITUZIONALEAN

EAJk exijentzia politiko eta demokratiko handiena defendatzen du. Exijentzia horretan, gardentasuna eta kontuak ematea, herritarren parte-hartzea eta etika eta erantzukizuna ekintza politiko eta instituzionala gidatuko duten elementuak izango dira.

Nahiz eta jakin oraindik ez dugula lortu nahi dugun maila, hau da, Europa iparraldeko gizarte garatuagoak dutena, Euskadin printzipio horiek ezartzeko eredu arrakastatsu bat garatu dugu; baina Espainiako Estatuko egoera ez da inola ere horrelakoa.

Gainera, printzipio horiek garatea halabeharrezkoa izanik -zeinaren oinarria baita herritarrek erakundeek ekintza modu eraginkorrean kontrolatzeko aukera izatea-, Espainiako Estatuko krisialdi politikoari erantzuna emateko ardatza izan behar dira. Izan ere, kontua da honako helburu hauei erantzuna ematea:

- Gehiago entzutea, bai pertsona guztiei, bai kolektibo guztiei. Hitz egitea. Hurbiltasun fisikoaren balioa ulertzea.
- Modu ulergarrian eta hurbilekoan informatzea. Datuak informazio bilakatzea. Ko-sortzea. Kontua da herritarrak politika publikoen garapenaren alderdi aktiboa izatea.
- Ahalegin argia egitea kontuak ebaluatzeko eta emateko. Gure herritarrek eskubidea dute jakiteko non inbertitzen dituzten beren zergak eta zein den administrazioek, kasu honetan, Administrazio zentralak garatzen dituzten zerbitzu eta programa publikoen emaitza.

Printzipio eta helburu horiek jarraituz, honako ildo hauetan lan egiteko konpromisoa hartzen dugu:

- › **Gardentasuna eta parte-hartzea aktiboki defendatzea herritarren eskubide moduan.** Gardentasuna eta parte-hartzea gero eta gehiago eskatzen dira, eta horren ondorioz, EAJren ustez, herritarren eskubide moduan hartu behar dira kontuan, eta beraz, obligazio bat dira administrazio publikoentzako eta gizarte-erakundeentzako, besteak beste alderdi politikoentzako. Alde horretatik, gardentasuna eta etika oinarritzko printzipioa izan dira eta izango dira EAJk zuzendutako erakundeetako gobernu-ekintzetan; baina horrez gain, exijentzia nagusietako bat ere izango dira, gure lana oposizioaren bidez garatzen dugu erakundeetan.
- › **Kontrol-sistema berriak proposatzea eta sistema horiek modu egokian funtzionatzen dutela ziurtatzea.** "Administrazio zaharrea" oraindik geratzen diren eremu ilunak alboratu behar dira, nahitaez. Lanean jarraituko dugu horiek "argitaratzeko", baita espazio horietako herritarren kontrola bermatuko duten sistemak ezartzeko ere. Bereziki, Estatuko Segurtasun Indar eta

Kidegoan eta Armadan, non ia ezinezkoa den edozer informazio eskuratzea.

- › **Sekretu Ofizialen Lege berria**, egungo iluntasunarekin amaituko duena. Izan ere, botere publikoen jardunean exijitu daitekeen gardentasuna galarazteaz gain, historialarien lana ere modu ulertezinean zailtzen du, eta are larriago, giza eskubideen gehiegikeriak edo urraketak prebenitzeko, murrizteko edo ikertzeko informazioa eskuratzea mugatzen du. Hortaz, Sekretu Ofizialen Lege berri bat proposatuko dugu, aurreko legerian egin genuen moduan, ezin izan baitzen bideratu PPre, PSOE-ren eta Ciudadanosen blokeo parlamentarioagatik. Sekretu Ofizialen Lege bat, gure kultura- eta segurtasun-eremuko herrialdeetan indarrean dauden irizpideekin bat egiten duena; dokumentuen sailkapen ez generikoen printzipioetan oinarritu ordez, orain gertatzen den moduan, legez aurrez ezarritako irizpideetan oinarrituko dena; gorde nahi den informazioaren eduki objektiboaren arabera neurtuko dena; eta epe tasatuen arabera ezarriko dena, eta epe horiek igaro ondoren, dokumentuak automatikoki desaitzatu dituen.
- › **Zerga-paradisuen inguruko konpromiso etikoa sakontzea.** Zerga-paradisuek diren herrialdeekin edo lurraldeekin eragiketarik ez egiteko berariazko konpromisoa.
- › **Lobbyak arautzea**, neurri eraginkorrak ezarriz horien gardentasuna ahalik eta handiena izan dadin, bereziki kargu publikoekin eta ordezkari politikoekin dituzten interakzioen eta harremanen gardentasuna.
- › **Ustelkeriaren aurrean jarrera tinkoa izatea.** Erabat sinesten dugu erakunde politikoek berek burutu behar dutela 'ustelkeriaren aurreko tolerantzia zero' politika, beren artean ager daitezkeen ustelkeria-kasuen aurrean mezu argiak emanaz. Hala ere, gure ustez, legeriak inpunitatea saihestuko duten neurriak bultzatu beharko lituzke, besteak beste, 'Berlusconi Legea' (Prozedura Kriminalaren Legearen 324. art.) indargabetzea; izan ere, lege horrek ia ezinezko egiten du delitu konplexuak ikertzea, esaterako, ustelkeria politikokoak.
- › **Aforamenduak eta Erregearen ukiezintasun izaera kentzea.** Aforamenduak kentzeari dagokionez, gure inguruko herrialde gehienekin bat eginez, gure ustez, kendu egin beharko lirakeke, baita Erregearen ukiezintasun izaera ere ekintza ez instituzionaletan.



EAJ-PNV BOZKATZEKO

# 10 ARRAZOI

- 1 Gure autogobernua eta gure Ekonomia Ituna defendatuko ditugu** olatu zentralizatzailerari aurre eginez.
- 2 Askatasunak eta Giza Eskubideak defendatuko ditugu** Sekretu Ofizialen legea, "Mozal" legea eta asilo eta babes politika aldatzeko.
- 3 Gizarte politikak bultzatuko ditugu**, Euskadin egiten dugun bezala, **gizarte kohesioa bermatu eta desberdintasun egoerak ekiditeko.**
- 4 Emakume eta gizonen arteko benetako berdintasuna bultzatuko dugu** emakumeek jasaten duten indarkeria matxistaren kontrako neurriekin. Emakumeen eta gizonen arteko soldata desoreka desagertaratzeko lan egingo dugu, baita erabaki esparruetan emakumeen presentzia eta parte-hartzea areagotzeko ere.
- 5 Pentsio duin eta bidezkoak defendatuko ditugu**, pensio guztiak KPIaren arabera igotzea eta alargunen pensioak nabarmen hobetzea lortu dugun bezala. Era berean, pensio sistema bermatu ahal izateko, Euskaditik bertatik kudeatu ahal izatea aldarrikatuko dugu.

- 6 Klimaren aldaketaren erronkari helduko diogu, energia-  
ren iraunkortasuna bultzatuko dugu.**
- 7 Euskal azpiegituren inguruan hitz-eman diren akordioak  
betetzea exijituko dugu,** besteak beste, AHT eta airepor-  
tuak.
- 8 Industriaren eta berrikuntzaren aldeko apustu irmo eta  
erabakigarria egingo dugu,** ekonomiaren  
oinarri baitira.
- 9 Ekonomiaren eta aurrekontuen egonkortasuna ahalbi-  
detzeko lana egingo dugu,** hazkunde ekonomiko eta sozial  
iraunkorra bermatu ahal izateko.
- 10 Madrilen Euskal Talde indartsua izan behar dugu, **negozia-  
zio eta elkarrizketa bidez Euskadirentzako mesedega-  
rriak diren akordioak lortu ahal izateko.****